

Askatasunaz gabetzeko zigorrentzako neurri alternatiboen betearazpena droga-mendekoengan

Observatorio VASCO *de drogodependencias*

Droga-Menpekotasunen Euskal Behatokia



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
GAJETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES



ISBN 978-84-457-3023-2



9 788445 730232

Salneurria: 8 €

Eusko Jurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Informe / Txostena

22

**Askatasunaz gabetzeko
zigorrentzako neurri
alternatiboen betearazpena
droga-mendekoengan**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
GAJETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2009

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>

Zuzendariak: José Luis de la Cuesta Arzamendi
Ignacio Muñagorri Laguía

Ikertzaileak: Xabier Arana Berastegui
Isabel Germán Mancebo

Ikerketa taldea: Xabier Arana Berastegui
Isabel Germán Mancebo
José Luis de la Cuesta Arzamendi
Ignacio Muñagorri Laguía
César San Juan Guillén
Aitzol Azpiroz Arrue
Laura Vozmediano

Argitaraldia: 1.a, 2009ko abendua
Ale kopurura: 1.000
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila
Internet: www.euskadi.net
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Fotokonposaketa: Composiciones RALI, S.A.
Particular de Costa, 8-10, 7.^a - 48010 Bilbao
Inprimaketa: Estudios Gráficos ZURE, S.A.
Carretera Lutxana-Asua, 24-A
48950 Erandio-Goikoa (Bizkaia)
ISBN: 978-84-457-3023-2
L.G.: BI 3394-2009

INFORME/TXOSTENA BILDUMAN ARGITARATUTAKO TITULUAK

1. Estudio referente a conceptos y terminología en reducción de la demanda.
2. Las drogas de síntesis en Bizkaia: un estudio exploratorio de las pautas de consumo.
3. Sintesi-Drogak.
4. Drogodependencias: reducción de daños y riesgos.
5. Guraso-eskolak: jarduera proposamenak.
Escuela de padres y madres: propuestas de actuación.
6. Cannabis: de la salud y del derecho: acerca de los usos, normativas, estudios e iniciativas para su normalización.
7. Los medios de comunicación social ante el fenómeno de las drogas: un análisis crítico.
8. Drogas ilícitas, vida recreativa y gestión de riesgos: estudio-diagnóstico de necesidades de intervención en prevención de riesgos en ámbitos lúdico-festivos de la CAPV.
9. Situación psicosocial de consumidores de heroína no adscritos a tratamiento en el País Vasco.
10. Drogas: Exclusión o Integración Social.
11. Delimitación del «status» jurídico del ciudadano «consumidor de drogas».
12. El uso de ketamina en el País Vasco: de fármaco anestésico a droga de fiesta.
13. Droga-kontsumitzaileen zigorrak eta espetxeko egonaldiak betetzea: jarduera-protokoloak.
Cumplimiento penal y penitenciario de personas consumidoras de drogas: protocolo de actuación.
14. Factores de riesgo y de protección frente al consumo de drogas: hacia un modelo explicativo del consumo de drogas en jóvenes de la CAPV.
15. El alumnado y las drogas desde la perspectiva del profesorado: ¿qué opina el personal docente vasco?
16. Drogas de ocio y perspectiva de género de la CAPV.
17. Documento técnico para un debate social sobre el uso normalizado del cannabis.

18. Estudio documental sobre drogas y violencia de género.
19. Las atribuciones simbólicas de la cocaína en la población joven consumidora.
20. Tabakoaren arloko politikak eta legeria.
Políticas y legislación en materia de tabaco.
21. Droga-mendetasuna inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarrengan (IKEDAA): kalitatezko hezkuntzarako eta osasunerako eskubidea.
Drogodependencias en menores extranjeros no acompañados (MENA): su derecho a una educación y salud de calidad.

Esker onak

Gure eskerrik beroena eman nahi diegu, nola edo hala eta ezeren truke, ikerketa hau aberasten lagundu diguten guztiei. Bereziki, honako hauei: Inmaculada De Miguel andreari (Eusko Jaurlaritzaren Justizia Sailburuordetzako Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako zuzendari ohia), Iñaki Subijana jaunari (Donostiako Probintzia Auzitegiko magistratua), Francisco Javier Frauca jaunari (Donostiako Zigor-arloko 4 zenbakiko Epaitegiko epaile-magistratua), Juan Carlos Da Silva jaunari (Gasteizko Zigor-arloko 1 zenbakiko Epaitegiko epaile-magistratua), Elena Cabrero andreari (Gasteizko Zigor-arloko 2 zenbakiko Epaitegiko epaile-magistratua), María Pérez (Barakaldoko Zigor-arloko Epaitegiko epaile-magistratua), Yolanda Paredes (Bilboko Zigor-arloko 7 zenbakiko Epaitegiko epaile-magistratua), eta Cristina De Vicente andreari (Barakaldoko Zigor-arloko 2 zenbakiko Epaitegiko epaile-magistratua), María del Mar Moradillo andreari (Gasteizko Zigor-arloko 1 zenbakiko Epaitegiko idazkari judiziala), Eduardo Yusta jaunari (Donostiako Zigor-arloko 4 zenbakiko Epaitegiko idazkari judiziala), Juan Ayala jaunari (Botere Judizialaren Kontseiluaren Dokumentazio Zentroko zuzendaria), Carmen Diz andreari (Botere Judizialaren Kontseiluaren Dokumentazio Zentroko Dokumentazio Atala), José Luis Vadillo jaunari (BGLZ), eta elkarrizketa sakonetan eskuzabaltasunez parte hartu zuten guztiei.

Aurkibidea

1. Sarrera. Askatasunaz gabetzeko zigorrentzako neurri alternati- boak. <i>Xabier Arana</i>	11
1.1. Indultu-eskaera (4.4 art., ZK)	14
1.2. Segurtasun-neurriak (95. art. eta hurrengoak, ZK).	14
1.3. Gizartearentzako lanak (88. art., ZK)	16
2. Droga-mendekoentzako espetxe-zigorraren betearazpena etetea- ri buruzko doktrinak eta jurisprudentzia aztertzea. <i>Isabel Germán</i>	19
2.1. Espetxe-zigorraren betearazpenaren etete arrunta	22
2.1.1. Kontzeptua eta aurrekariak.	22
2.1.2. Betekizunak eta ondorioak	24
2.1.3. Etetea ezeztatzea eta zigorra kentzea	27
2.2. Zigor Kodearen 87. artikuluko kasu berezia droga-mendekoentzat	28
2.2.1. Zigor Kodearen 87. artikulua aurrekariak.	29
2.2.2. Zigor Kodearen 87. artikulua aplikatzeko betekizunak	29
2.2.3. Berrerortzea, Zigor Kodearen 87. artikuluan.	33
2.2.4. Eteteari eusteko baldintzak.	34
2.2.5. Etetea ezeztatzea	36
2.2.6. Zigorra kentzea.	36
3. Delituan berrerortzeari buruzko azterlanak. <i>Xabier Arana</i>	39
4. Zigor Kodearen 87. artikuluan aipatzen den droga-mendekoent- zako espetxe-zigorra etetea aplikatzeari buruzko azterlan kuali- tatiboa: Elkarrizketa sakonak. <i>Xabier Arana</i>	45
5. Zigor Kodearen 87. artikuluan aipatzen den droga-mendekoent- zako espetxe-zigorra etetea aplikatzeari buruzko azterlan kuan-	

titatiboa: Epategietako datuak. César San Juan, Isabel Germán, Laura Vozmediano	71
5.1. Laginaren deskribapena eta prozedura.....	73
5.2. Emaidzak	77
5.3. Eztabaida	85
6. Ondorioak. Xabier Arana, Isabel Germán	91
7. Bibliografia	97

tx
i

o
n

s
f

t
o

e
r

n
m

a
e

1. Sarrera. Askatasunaz gabetzeko zigorrentzako neurri alternatiboak

XABIER ARANA

Legean askotariko alternatibak aurreikusten dira delituak egin dituzten droga-mendekoentzat, baina hala ere, espetxean dauden pertsona guztietatik, erdia baino gehiago droga-mendekoak dira. Zuzenean edo zeharka, droga-kontsumoarengatik eta/edo sorgogarrrien arloko egungo politikaren ondorioz espetxean dauden pertsona askok espetxean ere kontsumo-ohiturari eusten diote; beraz, oso zaila izaten da birgaitzeko eta gizarteratzeko prozesuak arrakastaz betetzea (Gañán, Gordon, 2001: 2).

Zenbait azterlanen arabera, droga-kontsumitzaileek gehiegizko ordezkaritza dute espetxeratuaren artean, gizarterearekin, oro har, alderatuta. Espetxeratuaren artean droga-kontsumoak eragindako arazoaren aurrean erantzun malguak prestatu behar dira. Osasunaren eta gizarterearen arloko agintariak gero eta gehiago inplikatu dira, eta espetxean drogak kontsumitzen dituztenei zerbitzuak eskaintzeko erantzukizuna beren gain hartzen dute; dena den, lankidetzara oraindik ere hobetu daiteke. Profesionalen ustez, droga-kontsumitzaileak birgaitzea lortzeko erantzun onena esku-hartze jakin batzuk dira; hain zuzen ere, gizarte-arloko elementuak, terapeutikoak eta osasunarekin loturiko elementuak uztartzen dituzten esku-hartzeak (DDEB, 2006). 1999. urteko Txostenean aipatzen denez, Europar Batasuneko herrialdeetan bada joera bat: droga-mendekoen kasuan espetxea saihesteko joera, *terapia zigorraren ordezkari* izeneko printzipioan oinarrituta (Tamarit 2003). Zenbait autoreren ustez, txanpon beraren bi aldeak dira, «gizarte-eskaera anbiguo bati erantzuteko aukera politiko-kriminal baten erreferentziako bi polo, drogazale-gaizkilearen eta drogazale-gaixoaren irudien artean (Askoren artean, 1989:59).

Azterlan honen bidez, droga-mendekoentzako dauden neurri alternatiboak identifikatu nahi ditugu, bereziki, Zigor Kodearen 87. artikuluan aurreikusitako etete bereziaren aplikazioa Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE). Indarreko legedia eta doktrina- nahiz jurisprudentzia-posizionamenduak aztertzeaz gain, 2004tik 2006ko abendura bitarte epaileek eta epaitegietan emandako autoak (artikulu horrekin loturikoak) bildu ditugu.

Droga-mendekoentzako aurreikusitako etete berezia aplikatzeko garaian, askotariko prestakuntzako hainbat profesionalak parte hartzen dute, eremu ju-

ridikotik gizartearen eta osasunaren arloko eremura bitarte. Azterlan honetan, profesional horien sektore baten iritzia jaso dugu eta haien bizipenak azaldu dizkigute, askotariko alderdietan; hala nola, Zigor Kodearen 87. artikulua helburuak, edo praktikan izaten dituzten arazoak artikulua hori behar bezala ezartzeko.

Elkarrizketa sakonetan bildutako informazioaren bidez (azterlan kualitatiboa), eta epaitegietako datuak prozesatuz (azterlan kuantitatiboa), gai oso ezberdinetara hurbiltzea lortu dugu; esate baterako, aldagai indibidualak, aldagai juridiko-penalak, edo droga-mendekoak delituan berrerortzea.

Espainiako Zigor Kodean espetxearentzako hainbat alternatiba aurreikusten dira delituak egin dituzten biztanleentzat, oro har, baita droga-mendekoentzat ere. Jarraian, alternatiba horiek azalduko ditugu eta askatasunaz gabetzeko zigorraren betearazpena etetea sakonago aztertuko dugu, droga-mendekoen kasu bereziari arreta gehigarria emanez.

1.1. INDULTU-ESKAERA (4.4 art., ZK)

Indultu-eskaeren kasuan, epaile edo auzitegiaren ustez zigorraren betearazpenak prozesuan bidegabeko luzapenik ez izateko eskubidea hauts badezake, zigorraren betearazpena eten egin dezake, baldin eta oinarritun ebazpenaz adierazten badu.

1.2. SEGURTASUN-NEURRIAK (95. art. eta hurrengoak, ZK)

Duela zenbait hamarkadatik, Europako Kontseiluaren Gomendio batek dioenez, zigortutako droga-mendekoari zigorra ordeztzeko aukera eman behar zaio, segurtasun-neurri birgaitzaile baten eraginpean jarriz gero (Quintero Olivares 1986). Sanz-en arabera (2003:69-71), segurtasun-neurria «mekanismo juridiko-penal espezifiko da, zigorraren osagarri». Zigorraren kasuan bezalaxe, alde aurretik zigor-arloko lege-haustea gertatu denez, eskubideren bat murriztea dakar eta organo jurisdikzional eskudunak ezarri behar du. Autore horrek nabarmentzen duenez, zigorraren kasuan ez bezala, «neurriak subjektuaren arriskutsutasun kriminalean soilik oinarritzen dira, eta horixe da neurrien funtsezko bereizgarria. Eta horregatik da tresna hori prebentziokoa eta berezia:

azken batean, neurrien bidez zera lortu nahi da, neurrien eraginpean jartzen direnek deliturik berriz ez egitea»¹.

ZKren 96. artikuluan, ezar daitezkeen segurtasun-neurriak deskribatzen dira, indarreko legediari jarraiki: askatasunaz gabetzen dutenak izan daitezke (zentro psikiatriko batean barneratzea, mendekotasuna gainditzeko zentro batean barneratzea, heziketa bereziko zentro batean barneratzea) edo askatasunaz gabetzen ez dutenak (desgaikuntza pertsonala; legez Espainian bizilekurik ez duten atzerritarrak nazio-lurraldetik kanporatzea; bizilekua leku jakin batean izateko betebeharra; izendaturiko leku edo lurraldean bizilekua izateko debekua; leku edo lurralde jakin batzuetara eta kirol- edo kultura-ikuskizunetara joateko debekua, edo edari alkoholunuen saltokiak edo joko-establezimenduak bisitatzeko debekua; familia-zaintza; ibilgailuak gidatzeko eskubideaz gabetzea; ar- mak eduki eta eramateko eskubideaz gabetzea; epaile nahiz auzitegiak zehazten dituen pertsona jakin batzuegana hurbiltzeko edota horiekin komunikatzeko debekua; sendabidearen menpe jartzea; heziketa, kultura, hezkuntza, lanbide, sexu-hezkuntza eta horien antzeko egitarauen menpe jartzea).

Salbuesle osatu edo osatugabe bat duten droga-mendekoen kasuan, askatasunaz gabetzen duten segurtasun-neurriak –adibidez, behar bezala homologatutako mendekotasuna gainditzeko zentro batean barneratzea (ZK, 102. art.)– edo askatasunaz gabetzen ez dutenak aplika daitezke, baita ZKren 96. artikuluan aurreikusitakoak ere, aurreko paragrafoan aipatu direnak.

Salbuespen osatugabea dela-eta, pertsona bati zigorra eta segurtasun-neurria ezartzen zaizkion kasuetan, ZKren 99. artikulua arabera², sistema bikarialari jarraiki funtzionatzen da, hau da, segurtasun-neurria aplikatzen da

¹ 95. artikulua

1. Epaile edo auzitegiak, egokitzen hartzen dituen txostenak eskatu eta gero, kode honen hurrengo kapituluko kasuetan dauden pertsonen segurtasun-neurriak ezarriko dizkie, baldin eta hurrengo inguruabarrak gertatzen badira:

1. Subjektuak, delitu gisa ezarritako egitea gauzatu izana.
2. Egiteak eta subjektuaren beraren inguruabarrek ondorioztatu ahal izatea etorkizunean subjektuak delitu berriak egin ditzakeela erakusten duen jokabide-iragarpena.

2. Egindako delituaren ondorioz ezar zitezkeen zigorra, zigor askatasun-gabetzailea ez denean, 96.3 artikuluko neurrietatik bat edo batzuk bakarrik ezarri ahal izango ditu epaile edo auzitegi epai-emailea.

² 99. artikulua

Askatasunaz gabetzen duten zigor eta segurtasun-neurriak elkarrekin pilatzen direnean, epaile edo auzitegiak segurtasun-neurria betetzeko aginduko du. Horrela, subjektua segurtasun-neurria betetzen egon den denbora zigorra betetzeko denboratik kenduko da. Segurtasun-neurria bukatu eta gero, horren bidez lorturiko ondoreak zigorraren betearazpenak arriskuan jartzen baditu, epaile edo auzitegiak zigorra betetzeko falta den denbora eten ahal izango du zigorraren iraupena baino luzeagoa ez den eperako, edo 96.3. artikuluko neurrietatik bat ezarri.

zigorraren gainera; segurtasun-neurriaren iraupenak ezin du izan zigorrarena baino luzeagoa. Neurriaren betetzealdia zigorra betetzeko alditzat hartuko da (Viada 1992).

Gaur egun, Auzitegi Gorenaren jurisprudentzian onartzen da aukera hau: ZKren 21.2 artikuluan aurreikusitako mendekotasun larriaren aringarria ere gehitzea segurtasun-neurriari; izan ere, «egindako azterlan zientifikoen arabera, birgaitzeko tratamendu egokia da birgaitzea lortzeko alternatiba posible bakarra» (Auzitegi Gorenaren 11/04/2000 epaia, ponentea: Martínez Arrieta jauna).

1.3. GIZARTEARENTZAKO LANAK (88. art., ZK)

Indarreko Zigor Kodearen berrikuntzetako bat dira Gizartearentzako Lanak. Besteak beste, ZKren 88. artikuluan³ jasota daude, eta gehienez ere urtebete-ko iraupena duten espetxe-zigorren ordezkioak dira; salbuespen gisa, bi urteko iraupeneko zigorren ordezko ere izan daitezke. Aldez aurretik aldeek esan beharrekoa entzuteaz gain, ezinbestekoa da zigortuaren baimena izatea. Zigortuak laguntzeko konpromisoa hartzen du, ordainsaririk gabe, «Administrazioak egin-

³ 88. artikulua

1. Epaile edo auzitegiek, alderdiei entzunaldia eman eta gero, urtebete baino gehiago ez dirauten espetxealdi-zigorren ordez isuna edo gizartearentzako lanak ezarri ahal izango dituzte, nahiz eta legeak deliturako zigor horiek ezarri ez, baldin eta horretara eragiten badute errudunaren beraren inguruabarrek, egitatearen izaerak, errudunaren jokaerak eta, bereziki, eragindako kaltea konpontzeko errudunak egindako ahaleginak, betiere ohiko erruduna ez denean. Espetxealdiko egun bakoitzaren ordez isuneko bi kuota ezarriko dira, edo egun bateko lansaioko bat. Ordezpen hori epaian bertan edo geroagoko ziodun auto batean egin dezakete, zigorra betearazi aurretik. Kasu horietan, epaile edo auzitegiak kode honen 83. artikuluan ezarritako betebeharrak edo eginbeharretatik bat edo batzuk betetzeko agindu ahal izango dio zigortuari, epaian zigortzat ezarri ez badira, ordeztutako zigorraren iraupena gairatu gabe.

Ohikoak ez diren errudunen kasuan, salbuespen gisa, epaile edo auzitegiek isunaz edo isuna eta gizartearentzako lanez ordeztu ahal izango dituzte bi urte baino gehiago ez dirauten espetxealdi-zigorrek, baldin eta egitatearen eta errudunaren inguruabarretatik antzematen bada zigorrak betetzeak beraiek dituzten aurrezaintzako eta gizartearen birsartzeko helburuak zapuztuko dituela. Kasu horietan, ordezpena aurreko lerrokadan isunaren zigorraren kasurako ezarritako betekizun berberekin eta bihurtze-modu eta bihurtze-modulu berberen arabera egingo da.

Erruduna genero-indarkeriarekin loturiko delitu batengatik zigortzen den kasuan, espetxe-zigorra gizartearentzako lanekin soilik ordeztu ahal izango da. Kasu horietan, epaile edo auzitegiak, berriz hezteko programa espezifikoak eta tratamendu psikologikoa ezartzeaz gain, Kode honen 83. artikulua 1. idatz-zatiko 1. eta 2. arauetan aurreikusitako betebeharrak edo eginbeharrek betetzea aginduko dio.

2. Ordezko zigor osoa edo beraren zati bat betetzen ez denean, hasieratik ezarritako espetxealdi-zigorra betearaziko da eta, hala denean, ordaindutako kuoten baliokidea den denbora kenduko da, aurreko paragrafoetan kasuan-kasuan ezarritako bihurtze-erregelen arabera.

3. Ezin izango dira inoiz ere ordeztu beste zigorraren ordezkioak diren zigorrak.

go dituen onura publikoko jardueretan, onura publikoko entitateetan edo interes orokorreko elkarteetan, eta Administrazioak eman beharko ditu» (Colmenero 2007:506-507). Egin beharreko jarduerak ez dira izango zigortuaren duintasunaren aurkakoak. Erreformaren ondorioz, 15/2003 Lege Organikoaren arabera, araudian aldaketa esanguratsuak gertatu dira; esate baterako, betearazpenaren kontrola Espetxeratuen Zaintzarako epaileei esleitzea.

tx
i

o
n

s
f

t
o

e
r

n
m

a
e

2. Droga-mendekoentzako espetxe-zigorren betearazpena eteteari buruzko doktrinak eta jurisprudentzia aztertzea

ISABEL GERMÁN

Konstituzioaren 25.2 artikuluan aholkatzen denez, askatasunaz gabetzeko zigorraren helburua zigortua berriz heztea eta gizarteratzea izango da, baina espetxe-errealitateari erreparatuta, zigortuaren gaineko eraginak ez du inolako zerikusirik lege-testuaren helburuarekin; zenbait kasutan, eragin oso negatiboak ere izan ditzake. Muñoz Conde eta García Arán autoreen esanetan, «Espetxeen Lege Organiko Orokorrean (ELOO) bildutako berme juridikoak eta kontuan hartu beharrekoak gorabehera, espetxeetako errealitatearen berri duen orok badaki askatasunaz gabetzeko zigorra betetzeak ondorio suntsitzaileak izan ditzakeela zigortuarengan, eta gainera, gizarteratzeko helburua bete gabe» (Muñoz Conde; García Arán, 2007: 557).

Egoera horren aurrean, eta Zuzenbide penalean indarrean dagoen *ultima ratio* printzipioa aintzat hartuta, badirudi egokia dela Zigor Kodean espetxe-zigorrentzako neurri alternatiboak txertatzea, Zigor Kodean jasotako larritasun-maila txikieneko zigorren kasuan, eta espetxeratzea zigor larrienen kasuetarako soilik uztea.

Hori horrela izanik, espetxe-zigorraren krisia dela-eta, sistema penal gehienetan espetxe-zigorra ordeztuko erakundeak txertatu dira, zigor arinen kasuan; izan ere, Muñoz Conde eta García Arán autoreen ustez, «zigor laburren kasuan, horrelako zigorrek ez baitute ezertarako balio». Autore horien arabera, zera lortu nahi da, «zigortua ez desgizarteratzea, espetxearen efektu estigmatizatzailea eta giza duintasunaren gaineko ondorioak saihestea» (Muñoz Conde; García Arán, 2007: 558).

Zigor Kodean, 80. artikuluan eta hurrengoetan aipatzen da askatasunaz gabetzeko zigorrak etetea.

De la Cuesta (2002: 128 hur.) autoreari jarraiki, lau etete mota daude:

1. 80. artikuluan eta hurrengoetan *baldintzapeko etete sinplea* aipatzen da. Lehen aldiz delitu egin duten delitugileei (primarioei, alegia) aplika da-kieke, gehienez bi urteko espetxe-zigorra badute eta, ahal den heinean, erantzukizun zibilak bete ostean. Epaile edo auzitegiak zigorraren bete-

razpena etetea erabaki dezake kasu horretan, funtsean, subjektuaren arriskutsutasun kriminala kontuan izanik, baita subjektuaren aurka beste prozedura penalik ba ote dagoen ere.

2. ZKren 83. artikuluan honako hau jasotzen da: *baldintzapeko etetea, portaera-arauak ezarrita*; arau horiek artikulua horretan zerrendatutako betebeharrak edo betekizunak betetzean dautza.
3. 80.4 artikuluan *etetearen ezohiko kasua* aurreikusten da zigortuak gaixotasun oso larria badu, sendaezinezko jasankizunekin, eta ezarrita dauden zigorretatik edozein etetea erabaki daiteke, inolako betekizunik gabe, salbu eta delitu egitean beste zigor bat arrazoi berberetatik duenean etenda.
4. 87. artikuluan *droga-mendekoentzako etete berezia* jasotzen da, honako baldintza hauekin: delitua drogen mendekotasunaren ondorioz egitea, ezarritako zigorra gehienez 5 urtekoa izatea eta zigortua mendekotasuna gainditzeko tratamendu batean hastea.

2.1. ESPETXE-ZIGORRAREN BETEARAZPENAREN ETETE ARRUNTA

2.1.1. KONTZEPTUA ETA AURREKARIAK

Giménez García autoreari jarraiki, askatasunaz gabetzeko zigorren betearazpena eteteko instituzioaren jatorria bilatzeko 1908ko martxoaren 17ko Legea egin behar da atzera, Espainiako sistema penalean baldintzapeko zigor-kentzea txertatu zuena (Giménez García, 2007: 625). Aurrerago, 1932ko eta 1944ko Zigor Kodeetan txertatu zen. Instituzio horren xedea hauxe zen, González Caso autorearen esanetan: «espetxe-zigor laburretara kondenatutako delitugile primarioei espetxean sartzeak eragiten zizkien kalteak saihestea baino gehiago, hein batean, espetxe-sistemaren erabateko porrota konpontzea» (González Casso, 1999: 92). 1973ko Zigor Kodean 90. artikuluan eta hurrengoetan arautu zen.

Zigorren betearazpena etetea ildo politiko-kriminal jakin batean oinarritzen da; hain zuzen ere, ildo horren arabera, zigorra ez da beti bete behar, baldin eta «prebentzio orokorraren ikuspegitik eta prebentzio bereziaren ikuspegitik begiratuta ezinbestekoa ez bada», eta betearazteari uko egin dakioke (Giménez García, 2007: 626).

Horri dagokionez, Muñoz Conde eta García Arán autoreek, eteteko lege-betekizunak eta irizpide bideratzaileak lantzeko garaian, zera azpimarratu dute, «Zigor Kodean mugak ezartzen zaizkio ordeztu daitezkeen zigorren

iraupenari, alegia, delinkuentzia ez oso larriari dagozkion zigorren iraupenari; izan ere, prebentzioko eragozpen orokortzat har daitezke: legegilearen ustez, muga horien gainetik, askatasunaz gabetzeari uko egiteak ondorio negatiboak izango lituzke Zuzenbide Penalaren eraginkortasun izutzailean. Beraz, muga horiek errespetatuta, prebentzioko orientazio orokorra errespetatutzat har daiteke, berriz ere kontuan hartu behar izan gabe» (Muñoz Conde; García Arán, 2004: 561).

Lehen ere aipatu dugunez, betearazpena eteteko arrazoia hauxe da: etorkizuneko aukera onak dituen delitugile primarioarentzat espetxean sartzeak izan ditzakeen ondorio kaltegarriak saihestea, jakin bai baitakigu askotan espetxeak gizarteratzearen guztiz kontrako eragina izaten duela eta delitu-ibilbidearen hasiera ere izan daitekeela. Ildo horri jarraitu dio Auzitegi Gorenak, Auzitegi horren otsailaren 15eko STS 200/1995 epaian ikus daitekeenez: «kondena baldintzapean kentzearen onura [...] premia batek eragina da; hain zuzen ere, etorkizunean deliturik ez egiteko aurreikuspen mesedegarria duten kondenatuek askatasunaz gabetzeko zigor laburrak betetzea saihesteko premiak, espetxe-bizitzak delitugile primarioengan izan dezakeen efektu galtzailea kontuan izanik (ikus SSTC 165 eta 209/1993 [RTC 1993\165 eta RTC 1993\209])».

Gehienez bi urteko askatasunaz gabeko zigorraren kondena jaso duten delitugile primarioak eteteaz balia daitezke, eta probaldian baldintza jakin batzuk ezarriko zaizkie; Zigor Kodearen 80. artikuluan eta hurrengoetan xedatzen denez, probaldiak bi urtetik bost urtera iraun dezake, eta zigor arinen kasuan, hiru hilabetetik urtebetera bitarte.

80.2 artikuluan, etendura-epaia finkatzeko garaian kontuan izan beharreko irizpideak ezartzen dira: delitugilearen beraren inguruabarrak, egitatearen berezitasunak eta zigorraren iraupena. Giménez García autorearen hitzetan, «aurreko Kodearen indarraldiko praktika judizial orokortua alde batera utzi nahi dela ematen du, instituzio hori ohikeriaz, seriean eta motibaziorik gabe aplikatzeari utzita» (Giménez García, 2007: 628).

Horri dagokionez, Muñoz Conde eta García Arán (2004: 563) autoreek diotenez, etetea nolabaiteko «automatismo» batekin eman izan da, inguruabarrak betetzen ziren bakoitzean, eta, oro har, inguruabarrak eta neurriaren egokitasuna neurtu gabe», eta aipatu dute diskrezionalitatea «aldez aurretik gauza daitekeela, ezarri beharreko zigorra aukeratzeko garaian ere; hartara, esparru penalak eta inguruabar aldarazleek ahalbidetzen badute, nahikoa da bi urtetik gorako zigorra aukeratzeko etetea saihesteko» (Muñoz Conde; García Arán, 2004: 563).

2.1.2. BETEKIZUNAK ETA ONDORIOAK

Askatasunaz gabetzeko zigorraren etete arrunta aplikatu ahal izateko, honako betekizun hauek bete behar dira:

1. Ezarritako zigorra edo ezarriko diren zigorren batura, gehienez ere, bi urteko askatasunaz gabetzea izatea.
2. Kondenatua delitugile primarioa izatea.
3. Sorrarazitako erantzukizun zibilak ordainduta egotea, ahal den heinean.
4. Subjektuaren arriskutsutasun kriminalik ez izatea.

Lehenengo betekizunari dagokionez, Zigor Kodearen 35. artikuluan askatasunaz gabetzeko neurriak definitzen dira; hona hemen: «espetxealdia, lokalizazio iraunkorra, eta isuna ez ordaintzeagatik sorturiko erantzukizun pertsonal subsidiarioa». Baina 81.2 artikulua arabera, bi urteen zenbaketan ez da kontuan hartzen isuna ez ordaintzeagatik espetxealdia.

Delitugileak lehen aldiz delitu egin izanaren betekizuna aipatzen denean, ZKren 81.1 artikuluan zehazten denez, «Ondore horretarako, ez dira kontuan hartuko zuhurtziagabekeriaren delituen ondorioz aurretik ezarrita dauden kondenak ezta, 136. artikulua arabera, ezereztu diren edo ezereztu beharko liratekeen zigor-aurrekariak ere». Muñoz Conde eta García Arán (2004: 564) autoreen esanetan, «delitu egin izana» leporatzeko, ezinbestekoa da epai irmoa egotea. Autore horien arabera, «delitu egitearen» interpretazioa «horretara mugatu behar da zentzu hertsian hartuta, delituak egitera alegia, eta, beraz, faltagatik aurrekariak ez dira kontuan hartuko» (Muñoz Conde; García Arán, 2004:563). Bestalde, Giménez García (2007: 634) autoreari jarraiki, delitugile primariotzat hartuko da lehen aldiz «dolozko» edozein delitu egin duena.

Lehen bi betekizunak –ezarritako zigorra, edo epai berean ezarritako zigorraren batura gehienez ere bi urteko espetxealdia izatea, eta zigortuak lehen aldiz delitu egitea– batera interpretatuz gero, hainbat zalantza sor daitezke: delitugile primarioa ote den delitu bat baino gehiago egiten direnean, pilaketa erreala edo pilaketa ideal-mediala atzematen denean, zigor bat baino gehiago jarri eta batura gehienez ere 2 urteko zigorra denean. Arazo horren aurrean, askatasunaz gabetzeko zigorraren betearazpena etetea arautzetik ondorioztatutako zenbait alderdiri buruzko irailaren 17ko 4/1999 kotsultan, Estatuko Fiskaltza Nagusiak ebazpenean argudiatzen duenez, delitugile primarioa izateko betekizuna ez bete-tzeagatik zigorraren betearazpena eteteari ezezkoa eman ahal izateko aurretik zigor-epai penal irmoa izatea ezinbestekoa da, dolozko delitu bat egiteagatik,

ezereztu gabea edo ezereztu daitekeena. Eta hortaz, 81.2 artikulua arabera, hainbat delitu-ekintza egin direnean zigorren betearazpena eten daitekeela dio, pilaketa ideala, ideal-mediala edo erreala izanik ere, baldin eta zigor guztien batura gehienez ere bi urteko espetxealdia bada, eta zigor guztiak epai berean ezarri badira.

81.3 artikuluan eskatzen denez, ahal dela, sorrarazitako erantzukizun zibilek ordainduta egon behar dute. Baina Muñoz Conde eta García Arán (2004: 564) autoreek diotenez, zigortua kaudimenduna denean soilik, zeren kaudimengabe deklaratu gero, betekizun hori ezabatu egingo bailitzateke. Artikulu horretan aipatzen da interes partikular batzuk badirela, biktimarenak, alegia. Hortaz, Giménez García (2007:636) autorearen arabera, erantzukizun zibilak ordaindu gabe onura lortu ahal izatea «salbuespena» da eta soilik kasu honetan gertatuko da: «zigortuak erabat edo partzialki betetzea ezinezkoa denean, eta Auzitegiak egoera hori onartzen duenean, biktimei eta Fiskaltzari entzuteko nahitaezko izapidea betetakoan». Baina autore horrek berak ohartarazten duenez, biktimaren interesak babestu nahi badira ere, hori lortzea ez da «nola edo hala egin behar, zeren kaltea konpontzea ezinezkoa izateagatik onura lortu ezina gertatuz gero, zalantzarik gabe, berdintasun-printzipioa urratuko bailitzateke, ekonomikoki ahulenen kaltetan, antzinako zorrengatiko espetxealdiaren aldaera bat gogoraraziz» (Giménez García, 2007: 636).

Arriskutsutasun kriminalaren kontzeptuari dagokionez, 95.1.2 artikuluan xedatzen denez, egindako egitatearen eta zigortuaren beraren inguruabarren arabera «ondorioztatu ahal izatea etorkizunean subjektuak delitu berriak egin ditzakeela erakusten duen jokabide-iragarpena». Giménez García autorearen ustez, arriskutsutasuna «berez, subjektu bakoitzaren aldaera propioa edo espezifiko da, eta subjektu bakoitzak bere motibazio zehatza eta indibidualizatua behar du –inoiz ez seriean–, dela emateko, dela ukatzeko»; horrek arazoak eragin ditzake «arriskutsutasun-epaia» egiaztatzeko garaian, «delitua egin ostekoa delako, [...] eta etorkizunerantz proiektatzen delako: haren delitu-jarduera berriz ere kanporatzeko aurreikuspena» (Giménez García, 2007: 627).

Horri dagokionez, Sola Dueñas autoreak iradoki du artikulu horretan aipatzen den arriskutsutasun kriminala ez dela ulertu behar segurtasun-neurrien oinarrian ematen zaien zentzu berean, baizik eta arriskutsutasunaren balioespen «negatiboa» eginez ulertu behar da, zentzu zehatzagoan, «subjektuaren ezaugarriak gorabehera, askatasunaz gabetzeko zigorra etetea egingarria izan dadin, betiere delitu gehiago egiteko arriskua nahiko handia izan gabe» (Sola Dueñas, 1996: 1208).

Ilido beretik, Muñoz Conde eta García Aráñen ustez ez da «arriskutsutasun-mailaren balioespenik egiten, zentzu positiboan, eta horren arabera egokiagoa izango litzateke segurtasun-neurri bat ezartzea, ezabatzearen; aitzitik, zigorra baldintzapean etetea beste delitu bat egitea saihesteko nahikoa ote den balioesten da, eta, nolabait, horri esker arriskutsutasuna zentzu negatiboan soilik balioesten da. Azken batean, kontua zera da, egilearen ezaugarriak kontuan izanik, espetxeratzea alde batera utz ote daitekeen erabakitzea» (Muñoz Conde; García Arán, 2004: 562).

Etetearen helburuetako bat zigortua birgaitzea da; horretarako, Zigor Kodean hainbat tresna eskaintzen dira delitu gehiago gertatzea saihesteko. Tresna horiek 83. artikuluan bildutako jokarauak dira (eta droga-mendekoen kasuan, baita 87. artikuluan ere) (Subijana, 2005: 12). Giménez García (2007: 643) autoreak dioenez, katalogo hori «adierazgarria baino ez da, eta ez zehatza», eta bertan jokarauak eta eginkizunak bereizten dira: «lehenak erruduna birgizarteratzerara eta gizarte-urrunketa desagerrarazterara bideratzen dira, eta bigarrenen bidez zigorraren konpentsazio-funtzioa indartzen da, nahiz eta bereizketa hori ez den argi eta garbi sumatzen artikuluan» (Giménez García, 2007: 643).

Jokarauak zigortuarentzako betebeharrak dira, eta etenaldiak irauten duen bitartean bete behar ditu. Hori horrela izanik, jokarauen bidez, delitu gehiago egiteko arriskua murrizteko behar diren baldintzak gauzatzeaz gain, berriz gizarteratzearen aldeko inguruabarrak sortzen dira (Subijana, 2005: 12).

Subijanak lau jokarau mota bereizten ditu, helburuaren arabera:

1. Delitu egiteko aukerak murriztea.
2. Zigortuak erakundeekiko lotura izatea bermatzea.
3. Ohitura edo jarrera prosozialak ahalbidetzea.
4. Faktore kriminogenoa neutralizatzea (Subijana, 2005: 12).

Giménez García-ren iritziz oso garrantzitsua da zigortuak jokarau horiek onartzea; izan ere, «esan gabe doa betearazpenaren etetearen onuradunak onartzean datzala jokarauaren arrakasta, eta beraz, delituan berrerortzea saihesteari dagokionez, pronostikorik onena» (Giménez García, 2007: 644).

Muñoz Conde eta García Arán autoreen arabera, ezarritako betebeharrei esker, zigorraren betearazpena eten zaion zigortuarentzat kontrola handiagoa izango da, eta diotenez, «ez dira zigortzekoak, ezta segurtasun-neurritzat hartzekoak ere, ez direlako erruduntasuneko edo arriskutsutasuneko ezein epaike-

taren ondorio juridikoak; aitzitik, betekizun nagusia (hau da, berriz deliturik ez egitea) beteko dela bermatzeko jarritako betekizun erantsiak dira» (Muñoz Conde; García Arán, 2004: 564).

Askatasunaz gabetzeko zigorren betearazpena eteteko inguruabarrak maiaztaren 6ko 515/2005 Errege Dekretuan arautzen dira. Hain justu, IV. kapituluan, epaile edo auzitegi epai-emaileek erabakitako askatasunaz gabetzeko zigorren betearazpena eteteko baldintza moduan ezarritako betebeharrak eta eginbeharren kontrol- eta jarraipen-prozedura arautzen da; Espetxe Administrazioak egiten du, espetxe-arloko gizarte-zerbitzuen bitartez. Era berean, esku-hartzerako eta jarraipenerako plan individuala osatzea ere aurreikusten da; organo judicial horiek onartu beharko dute eta zigortuak bete beharreko betebeharrak eta eginbeharrenak betetzen diren heinean aldatu egingo dira.

2.1.3. ETETEA EZEZTATZEA ETA ZIGORRA KENTZEA

Zigortuak etenaldian delituren bat egiten badu, etendako zigorra bete beharko du. Horri gagozkiola, Muñoz Conde eta García Arán (2004: 565) autoreek diote ezin dela esan delitu egin dutenik epai irmoa eman arte. Halaber, azaldu dutenez, zigorra eten aurretik egindako egitate batengatik zigor-epaia etenaldian ateratzen bada, ezeztatzeari dagokionez, horrek ez du eraginik izango (Muñoz Conde; García Arán, 2004: 565).

Zuhurtziagabekeriako delitu bat egitearen ondoriozko zigorra eteteko aukerari dagokionez, Prats eta Tamarit autoreek uste dute inguruabar horrek ez duela funtsik, zeren «zuhurtziagabekeriako delituek zera adierazten baitute, subjektuak ez duela izan behar adina kontu, baina ez desobedientzia-borondate subjektiboa, penalki babestutako balio-eskalaren aurrean; beraz, zuhurtziarik gabeko jokabidearen intenzionalitaterik ezak ez du ahalbidetzen zigorra bete behar ote den epaitzea, probaldiak porrot egin duelako» (Prats, Tamarit; 2004: 505).

Epaile edo auzitegi epai-emaileak ezarritako betebeharrak edo eginbeharrei dagokienez, inguruabar horrek «ez dakar, ezinbestean, ezeztatzea; baizik eta jokarua aldatzea edo etenaldia luzatzea eragin dezake» (Muñoz Conde; García Arán, 2004: 564).

84. artikuluan, hiru aukera biltzen dira betebeharrak edo eginbeharrenak betetzen ez direnerako:

1. Jokarauaren ordez 83. artikuluan finkatutako beste jokarau bat ezartzea. Bete ez den jokarauaren mota berekoa ez den bestelako bat ezar daiteke (Giménez García: 2007: 647).
2. Etenaldia luzatzea, betiere gehienez bost urteko epea gainditu gabe.
3. Etetea ezeztatzea, ez-betetzea behin eta berriz gertatuz gero.

Eremu horretan bada salbuespen bat: etxeko tratu txarren kasua, betiere ZKren 84.3 artikuluari jarraiki, ezeztatzea nahitaezkoa den kasua izanik. Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren bidez aldatu zen artikulua hori.

Etendura-epea deliturik egin gabe amaitutakoan eta ezarritako jokarauak beteta, organo judizialak zigorra kentzea erabakiko du, 85.2 artikulua betez.

2.2. ZIGOR KODEAREN 87. ARTIKULUKO KASU BEREZIA DROGA-MENDEKOENTZAT

Lehen ere esan dugunez, betearazpenaren etendura arautzen duten arauak Konstituzioaren 25.2 artikulua arabera interpretatu behar dira. Baina droga-mendekotasunaren kasuan, askatasunaz gabetzeko zigorrak zigortua berriz hezi eta gizarteratzera bideratzea (Konstituzioaren aginduari jarraiki) oso garrantzitsua da, bai prebentzio bereziari dagokionez, baita prebentzio orokorrari dagokionez ere.

Kontuan izan behar da droga-mendekotasunak tratamendua behar duela, programa espezifiko eta konplexua biltzen duen tratamendua, alegia, eta espe-txean sartuz gero, oso zaila da bateragarri egitea. Etetea aplikatzeko egonaldia eta erabat osatzea ezinbestekoak dira, eta aplikatuko dela bermatua dago, lege-aginduz onura hori baldintzatua baitago, tratamendua alde batera ez uztearekin (Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea: 2006).

Drogen mendekotasuna dutenen zigorra etetearen azpian legegilearen aha-lerin jakin bat ezkututzen da, delinkuentzia funtzionalaren kasuetan irekitzeko ahalegina, Zigor Kodean ezarritako betekizun orokorretako zenbait modu mal-guagoan interpretatzea ahalbidetuz.

Prebentzio orokorrari dagokionez, eta etete arruntaren kasuan lehen ere definitu dugunez, 87. artikuluan deliturik ez egiteko baldintza ezartzen da; hori horrela, prebentzio mota horren alde negatiboa osatu da.

2.2.1. ZIGOR KODEAREN 87. ARTIKULUAREN AURREKARIAK

Martxoaren 24ko 1/1988 Lege Organikoaren bidez Zigor Kodea aldatu zenean, lege-testuari 1973ko Zigor Kodearen 93 bis artikulua erantsi zitzaion; hartara, gure legedian lehen aldiz droga-mendekoentzako zigorraren baldintzapeko etetearen figura txertatu zen. Alcácer-en esanetan, erakunde horren helburua zen «errepresio-gorakadak espetxe-eremuan eragindako ondorioak leuntzea, eta ebidentzia honi aurre egitea: espetxea, baliabide itxia izaki, ez da batere ego-kia droga-mendekoek mendekotasuna gainditzeko» (Alcácer, 1995: 889).

Aldaketa horrek kritika ugari jaso zituen gehiengoaren aldetik, Prats eta Tamarit-ek azaldu dutenez. Autore horiek diotenez, 93 bis artikulua hori zehatz-mehatz aztertuz gero, hainbat kontraesan eta inkongruentzia agerian geratzen ziren eta ez ziren erraz defendatzekoak (Prats, Tamarit, 2004: 510). Ildo beretik, Alcácer-ek dio «1988ko Lege osoa bezalaxe, lege horretan bildutako etetearen araudia zalantzan jarri zuten doktrina osoa zela-eta, eta ez soilik gabezia teknikoei zegokienez, baizik eta, eta bereziki, etetea aplikatzeko ezarri ziren baldintza eta muga zorrotzei zegokienez; izan ere, kasu gehienetan, ia ezinezkoa zen onura aplikatzea, bete beharreko xedeak irauliz horrela» (Alcácer, 1995: 889).

1995eko Zigor Kodean, 87. artikuluan aipatzen da onura hori. Aurrerago, azaroaren 25eko 15/2003 Lege Organikoaren bidez droga-mendekoentzako etetea aldatu eta eten daitezkeen zigorraren gehieneko muga hiru urtetik bost urtera luzatu zen, ezohiko erregimen horri jarraiki; zigortua ohiko erruduna ez izateko betekizuna alde batera utzi zen, eta hori da, ziurrenik, zigorrak gogortzeko erreformaren salbuespen nabarmenena (Prats, Tamarit, 2004: 510).

Ikusi dugunez, 2003an gauzatu eta 2004an indarrean hasitako erreformak garrantzi handia izango du praktikan, etete mota hori aplikatzeko aukerak nabarmen handitzen baititu.

2.2.2. ZIGOR KODEAREN 87. ARTIKULUA APLIKATZEKO BETEKIZUNAK

2003ko erreformaren ostean, egun indarrean dagoen 87. artikuluari jarraiki, droga-mendekoen kasuan askatasunaz gabetzeko zigorraren betearazpenaren etete berezia aplikatze aldera, honako betekizun hauek bete behar dira:

- a) Ezarritako zigorrak gehienez bost urteko iraupena izatea.

- b) Zigortuak alkohola, droga toxikoak, sorgogarriak, substantzia psikotropikoak edo antzeko eraginak sortzen dituzten beste batzuk kontsumitzeagatik egin izana delitua.
- c) Behar bezala egiaztatua edo homologatua den zentro edo zerbitzu publiko edo pribatuak honako hau ziurtatzea, etetea erabakitzen den unean: kondenatuak mendekotasuna gainditu duela edo mendekotasuna gainditzeko sendabidean dagoela.

Ikusiko dugunez, ez berrerortzea ez da betekizuna, baina garrantzitsua izango da, etetea eman ala ez eman erabakitzeko garaian kontuan izango baita.

a) *Askatasunaz gabetzeko zigorrak, bost urtetik beherakoak*

Subijana (2005:11) autorearen arabera, zigorraren betearazpena eteteko lehen betekizun hori paradigma honi dagokio: erantzuna lege-haustearen garrantziaren arabera egokitzeko paradigmarik.

Lehen ere aipatu dugunez, 15/2003 Lege Organikoaren bidez, Zigor Kodearen erreformak onura hori aplikatzeko aukerak zabaltzea ekarri zuen, ezarritako zigorraren gehieneko muga hiru urtetik bost urtera luzatu baitzen etetea lortu ahal izateko. Hori horrela izanik, eta droga-mendekoek egindako delitu gehienak ondarearen kontrakoak direla kontuan izanik (ezarritako zigorrak, beraz, tarte horretan sartzen dira, kasu gehienetan), aldaketa hori koherentea da drogen gizarte-fenomenoaren errealitatearekin.

Baina etete arruntaren kasuan aipatu dugun bezala, ez dugu ahaztu behar epaileak edo auzitegiak, eteteari buruzko erabakia hartu aurretik, eta eragina izan dezaketen inguruabar aldarazleak aintzat harturik, bost urtetik gorako zigorra aukera dezakeela; orduan, ez litzateke izango onura hori aplikatzeko aukerarik.

Alcácer-ek lehendik ere esandakoari jarraiki, «nahiz eta legedi berriarekin jardun, onuraren balizko aplikagarritasuna zabaltzeko garaian marjinak zuhurregiak eta mugatzaileegiak izaten dira. Epaileek neurria aplikatzearen aldeko jarrera baldin badute, orduan lortuko dugu droga-mendekoentzako baldintzapeko eteteak lortu beharreko helburuak betetzea» (Alcácer, 1995: 897).

b) *Droga-mendekotasunaren ondorioz egitea delitua*

87. artikuluan jasotzen den beste betekizun baten arabera, kondenatuak drogen «mendekotasunak eraginda egin behar du delitua». Kasu horretan,

delinkuentzia funtzionalaren eremuan gertatzen da hori, hau da, dosia lortzeko egiten diren delituak. Zenbait droga legez kanpokoak direnez, oso garestiak dira, eta drogazaleak gero eta baliabide gehiago behar izaten ditu. Egoera horretan, droga-mendekotasuna da delituak egitera bultzatzen duen faktorea. Hari berari jarraiki, Auzitegi Gorenak (STS 372/1999, otsailaren 23koa) zera dio: «... droga-mendekotasunak eragin handia du borondatearengan, eta, izan ditzaketen ondorio negatiboak direla-eta, ekintza jakin batzuetatik urruntzea gomendatzen duten balazta inhibitzaileak menderatzen ditu, eta mendekotasuna asetzeko bulkada indartsuagoa gailentzen da; horren ondorioz, delituekintzak egiten dira, baina kriminologia-arloan “delinkuentzia funtzionala” esaten zaion eremuan sartzen dira, mendekotasuna asetzeko premiak eragindakoa delako. Delinkuentzia funtzionala ondarearen aurkako delituak izaten dira, eta, kasu honetan bezalaxe, baita droga-trafikoarekin eta kaleko hizkeran “trapitxeo” esaten zaionarekin loturikoak ere; kontsumoa autofinantzatzeko droga-salmenta txikiak egiten dituzte, eta horrek dakarren marjina ekonomikoaren barruan».

Dena dela, kondenatuak delitua kontsumoarekiko mendekotasunaren eraginez egin badu ere, praktikan, hori frogatzeko arazoak izaten ditu. Izan ere, oso zaila da erabakitzea mendekotasunak zenbateraino bultzatu duen delitua egitera.

Biztanleria-sektore hori oso kaltetua dago; baliabiderik ez izateaz gain, bizitza normalizatua eramatea ezinezkoa izaten dute, eta horren ondorioz, delituak egitera behartuta daude, toxikomaniari aurre egiteko modu bakartzat. Horri gagozkiola, Giménez García autoreak dioenez, «toxikomanoarengan, delitua ondorioa da; arrazoi sakonago baten azaleratzea da, eta arrazoi horrek bultzatuta egin du delitua, alegia, drogen mendekotasunak bultzatuta. Horrela, bada, gizarte-ikuspegitik nahiz ikuspegi juridikotik begiratuta, garrantzitsuagoa da arrazoiari kasu egitea efektuari kasu egitea baino» (Giménez García, 2007: 655). Auzitegi Gorenak ildo horri eutsi izan dio, Auzitegi horrek otsailaren 18ko 232/2000 epaian ikus daitekeenez: «... Salak jakin badaki honelako kasuetan, hau da, droga-mendekotasunak eragindako delinkuentzia funtzionalaren kasuetan lehentasuna ezkutuko arrazoiarengan –drogen mendekotasunean– eragitea dela, bai alderdi pertsonalari erreparatuta, baita gizarte-alderdiari erreparatuta ere, arrazoi horren azaleratzearengan –delituak egitea– eragitea baino gehiago. Hori dela-eta, justizia penalaren sistemak eman ditzakeen erantzunen artean, droga-kontsumoa alde batera uzten lagun dezaketenak lehenetsi behar dira».

Artikuluaren idazkera interpretatzeko garaian, Alcácer (1995: 892) autoreak hainbat interpretazio-ildo aipatu ditu. Lehenik, eta ikuspegi murriztailetik begira-

tuta, 87. artikuluan agertzen den «mendekotasunak eraginda» espresioa beste formula honekin identifikatzen da: «substantziaren baten efektuen eraginpean»; eta horren arabera, delitua egiteko unean kondenatua «egoztezintasun-egoeran» egon izana nahitaezkoztat hartu beharko litzateke. Autore beraren arabera, bigarren aukera delinkuentzia funtzionalari buruz lehen aipatutakoa da, hau da, droga lortzeko baliabideak eskuratzeko xede bakarraz egiten dena. Alcácer-en ustez «interpretazio zabala egitea, bi interpretazio-aukerak barnean hartuta, errealis-tagoa da gertakari horiekin loturiko errealitate sozio-ekonomikoari dagokionez» (Alcácer, 1995: 893).

Nolanahi ere, epaian esanbidez aipatu behar da delitua egitearen eta dro-gen mendekotasunaren arteko lotura, baina hori frogatzeko arazoak izaten dira praktikan, gorago adierazi dugunez.

c) Mendekotasuna gainditzeko tratamendua

Lehen jokarau moten sailkapena egin dugu eta azkeneko kasuari –faktore kriminogenoa neutralizatzea– dagokionez, etete berezia emanaz gero, eteteal-dian ezin izango zaio utzi mendekotasuna gainditzeko tratamenduari. Subijanari jarraiki, mendekotasuna gainditzeko tratamenduaren betekizunak eta horren ziurtapenak «berriz gizarteratzeko paradigmarekin loturiko eskakizun multzoa osatzen dute, eta mendekotasun toxikoa modu eraginkorrean tratatzea bermatuz gero, garrantzi bereziko faktore kriminogeno bat nabarmen murrizten da» (Subi-jana, 2005: 11).

Tratamendua egiteko zentroari dagokionez, 87. artikulua arabera «behar bezala egiaztatua edo homologatua den zentro edo zerbitzu publiko edo pribatua» egin daiteke. Giménez García autoreak zera dio horren inguruan, «toxiko-delitugilearen konponbideak pribatizatzeak ez gaitu ikaratu behar; aitzitik, gizar-teak berari ere badagokion koprotagonismoa bere gain hartzeko prozesutat hartu behar da, non sistema penala ere gizartean txertatuta dagoen, aparteko mundu bat izan gabe» (Giménez García, 2007: 660).

87. artikuluko etetearekin hauxe lortu nahi da, Muñoz eta Arán autoreek ongi azaltzen duten moduan: «mendekotasuna gainditzeko tratamendua egiteko aukera ematea, espetxera joan beharrean» eta, edonola ere, «mendekotasuna gainditzeko tratamendua edo gizarteratzea» ez zapuztea (Muñoz Conde; García Arán, 2004: 565).

2.2.3. BERRERORTZEA, ZIGOR KODEAREN 87. ARTIKULUAN

Zigorraren betearazpena etetearen araubide orokorrean ezinbestekoa da delitugileak lehen aldiz delitua egin izana, baina etete bereziaren kasuan, ez da eskakizun hori aipatzen droga-mendekoei onura hori emateko.

Delinkuentzia funtzionalaren eremuan, badirudi droga-mendekoa berrerorlea ez izateko eskakizunik ez jartzea egokia eta koherentea dela droga-mendekotasunaren fenomenoaren errealitatearekin; izan ere, errealitate horretan erabilera problematikoak dituzten kontsumitzaileak baitira etetearen onuradun nagusiak, eta batzuetan, degradazio-maila handia izaten dute, baztertuta daude, eta bizitza normalizatua egiteko aukera oso txikiak izaten dituzte.

2003. urteko erreforma bitarte, «ohiko errudunak» ez izatea eskatzen zen, baina 15/2003 Lege Organikoarekin betekizun hori desagertu egin zen, eta gainera, zigor-muga bost urtera luzatu zenez, onura horren aplikazio-eremua zabaldu egin da.

Prats eta Tamarit autoreek positiboki balioesten dute delitugile primario izateko eskakizuna ez ezartzea; diotenez, «betearazpenaren etetearen araubide orokorrean ez bezala, onura toxikomanoei aplikatzeari dagokionez, ez da eskatzen delitugile primarioak edo birgaituak izatea, eta hori koherentea da kondenatu mota horrek izaten duen errealitate kriminologiko espezifikoarekin, baita funtzionala ere, betearazpena eteteko instituzioak duen bigarren aukerako eskakizun politiko-kriminaleri dagokienez, izan ere, bat baitator *trafikatzaile/kontsumitzaile* esaten zaienen ezaugarri bereziekin» (Prats, Tamarit, 2004: 511).

Alabaina, horrek ez du esan nahi berrerortzea ez denik aintzat hartzen; delitugile primarioa ez izateak badu garrantzia, zeren 87. artikulua bigarren idatz-zatian zehazten denez, epaileak erabaki behar baitu egokia ote den zigorraren betearazpena eteteko onura ematea, kondenatua berrerorlea baldin bada. Epaile edo auzitegiak, egitatearen eta egilearen inguruabarrak kontuan izanik, «ziodun ebazpenaren bidez» balioetsiko du.

Hala eta guztiz ere, 87. artikulua eskakizunak azaldu ostean, eta neurriaren aplikazio praktikoari dagokionez, Subijanak zera dio, «espetxe-zigorraren betearazpenaren etete-arloan arau aukera oso handia da, eta horrek kontraste handia egiten du praxi judizialarekin, onura emateko garaian automatikoki jokatzeko baitute, eta gauzatzeko garaian ez baitu egiazko edukirik» (Subijana, 2005: 14).

2.2.4. ETETEARI EUSTEKO BALDINTZAK

Aipatutako betekizunekin batera, 87.3 artikuluan betearazpenaren etetearen probaldia aipatzen da, hiru urtetik bost urtera bitarte, eta epe horretan kondenatuak ez du deliturik egin behar.

Etetearen araubide arruntean probaldiaren gutxieneko epea bi urte dira (80.2 art.), eta droga-mendekoen kasuan, epea luzeagoa da; doktrinak gogor kritikatu du epea luzeagoa izatea, ez baita justifikaziorik eman kondenatuari horrelako aldea ezartzeko. Kontuan izan behar da mendekotasuna gainditzeko tratamenduak ez duela eperik, kontsumitzailearen faktore ugariaren arabera den heinean –indibidualak, gizarte-arlokoak, osasunarekin loturikoak...–; hortaz, tratamenduaren iraupena ez daiteke argudiotzat har droga-mendekoei probaldi luzeagoa ezartzeko. Halaber, ikuspegi politiko-kriminaletik begiratuta ere ez da azalpenik aurkitu, ez konbentzitzeko moduko azalpenik, bederen (Prats, Tamarit, 2004: 511-512).

Bestalde, eta araubide arruntean bezala, etendura-epean kondenatuak deliturik ez egitea eskatzen da. Kasu honetan, etete arruntaren kasuan aipatutakoa aplikatu behar da, etendura-epean delitua egin dela ulertzeko epai irmoa nahi-taetzkoa izateari dagokionez.

Era berean, 87. artikuluko etetearen kasuan, onura horri eustea baldintzatua dago eta neurria aplikatzeko eskakizun den mendekotasuna gainditzeko tratamenduari ez zaio utzi behar. Hala ere, tratamenduari uztea diogunean zertaz ari garen zehaztu behar da.

Alcácer (1995: 904) autorearen arabera, droga-mendekotasunaren errealtate terapeutikoak erakutsi du desintoxikatzeko tratamendua moztea «askotan saihestezina izaten dela», baina horrek ez du esan nahi «tratamenduak berak porrot egin duenik».

Ildo beretik, Echeburúa (2000: 91) autoreak dio berriz kontsumitzen hastea oso ohikoa izaten dela mendekotasun guztietan, nahiz eta porrot moduan hartu; abstinentzialdi luzeak, aldiz, arrakastatzat hartzen dira. Baina ideia hori simpleegia da horrelako fenomeno batentzat, droga-mendekotasuna oso fenomeno konplexua baita. Berriz kontsumitzen hastea abstinentzia lortzeko prozesuaren zatitzat hartu behar da, mendekotasunak berriz hasteko joera naturala baitu.

Castanyer (1998: 27) autorearen ustez, droga-mendekotasunaren tratamenduan «abstinentziako eta berriz kontsumitzen hasteko faseak elkarren segidan datoz» eta, tratamenduaren arrakasta balioesteko garaian, abstinentzialdiak eta

berriz hasteak izan behar dira kontuan. Horrela, bada, tratamenduak arrakasta izan duela esango dugu «abstinentzialdiak gero eta luzeagoak direnean eta berriz kontsumitzen hastea hain maiz gertatzen ez denean, aldi labur eta ez hain agresiboak izanik». Autore horren arabera, hauxe da tratamendu arrakastatsua: subjektua azkar erreazionatzeko gai izatea lortzen duena, «berriz kontsumitzen hasiz gero, arreta-eskaera ahalik eta gutxien atzeratuz eta berriz ere abstinentziara lehenbailehen itzultzeko borondatea adieraziz» (Castanyer 1998:36).

Droga-mendekotasunen tratamenduan berriz kontsumitzen hastea ohiko izaten dela ulertu behar dugu, eta ez dugu porrot moduan hartu behar; ez, behintzat, onura hori droga-mendekotasunaren fenomenoaren errealitatearekin koherentzian aplikatu nahi bada.

Ilido beretik, Giménez García dioenez, tratamenduari uztea zera da, «noiz-behinkako etenaldia edo egoeraren araberrako ahulaldia baino gehiago, droga-mendekoak tratamendua arbuizatzeko borondate argi eta egiaztatua izatea; izan ere, esperientziak erakutsi digu drogazalearen kasuan oso maiz gertatzen dela etenaldi edo ahulaldi hori, tratamenduaren gogortasuna eta seriotasuna gainditu behar baitute. Aldiz, tratamendua arbuizatzeko borondatea egiaztatua geratuko da zentrotik alde egiten badu, edo drogak behin eta berriz kontsumitzen dituela frogatzen bada, zentrotik fisikoki alde egin behar izatea baitakar horrek» (Giménez García, 2007: 659).

Azaroaren 25eko 15/2003 erreformaren bidez, mendekotasuna gainditu izana edo tratamendua balioesteko auzitegiko medikuaren txostena eskatzen da, betearazpenaren etetea emate aldera. Era berean, tratamenduaren erantzule diren zerbitzuek ere txostenak aurkeztu beharko dituzte aldizka, gutxienez urtean behin (87.4 art.). Horrekin guztiarekin, Giménez García (2007: 659) autorearen ustez, «tratamendua gainditzeko hasitako programaren seriotasuna eta zorrotasuna indartzen da».

Txosten horietan, tratamendua noiz hasi den egiaztatu behar da, bilakaera, izan ditzakeen aldaketak, eta noiz amaitzen den.

Giménez García-ren hitzetan, «espexaren ordeko neurriak betearazteko eta kontrolatzeko fase horretan, hurrekotasun judizialaren printzipioa biziki garrantzitsua da»; printzipio hori zera da, «desintoxikazio-prozesuan dagoen pertsonarekiko harreman zuzena izatea». Autore horren ustez, «pertsonaren justizia» da, ez «delituen justizia». Orobat, hurrekotasunak zera dakar, «birgaitzeko zentroetako arduradunekiko harremana, eta koordinatzeko formulak nahiz jardun normalizatuko protokoloak bilatzea, kontrol judizialaren eskakizunari dagokionez» (Giménez García, 2007: 661).

2.2.5. ETETEA EZEZTATZEA

87.5 artikulua lehen paragrafoaren arabera, kondenatuak lehen aipatutako baldintzak betetzen ez baditu, epaileak etetea ezeztatuko du. Beraz, mendekotasuna gainditzeko tratamenduan jarraitzeko betebeharra ez bada betetzen, ezeztatu egingo da. Horrek hauxe esan nahi du: etendura-epaia igarotzen denean kondenatuak ez badu egiaztatzen mendekotasuna gainditu duela, bertan behera utzitako espetxe-zigorra betetzea aginduko du epaileak.

Prats eta Tamarit ez daude ados bi elementu parekatzearekin, hain zuzen ere, delituan berriz erortzearen efektuak eta ezarritako segurtasun-neurria ez betetzea parekatzearekin (Prats, Tamarit, 2004: 512), baina haien ustez, kasu horietan zera eska daiteke, «segurtasun-neurria ez betetzeak ez izatea ondorioztat onura bertan behera uztea, ezinbestean; aitzitik, eta araubide arruntean kasu horietarako aurreikusten denari jarraiki, epaileak aukera izan beharko luke beste segurtasun-neurri bat ezartzeko, edo etendura-epaia luzaizteko, edo askatasunaz gabetzeko zigorra betetzea agintzeko» (Prats, Tamarit, 2004: 513).

Giménez Garcíaren arabera «puntu horretan, kasu bakoitza zehazki aztertu behar da, eta ezinbestekoa da, halaber, zentroko arduradunak epaile epailearekin elkarrizketa zintzoak izatea, epaileak neurri egokia erabaki dezan» (Giménez García, 2007: 659).

Nolanahi ere, Alcáceren ustez, «droga-mendekotasunaren problematika konplexuarentzat egokiagoa izango litzateke epaileari erabakimen handiagoa ematea, beste delitu bat egin izana edo tratamendua alde batera uztea egiaz porrot moduan ulertu behar ote diren erabakitzeke garaian, etetearen helburuei dagokien onuradunarekin egindako itxaropenak kontuan izanik [...]»; esanbidez ezartzen da tratamenduarekin jarraitzeko aukera edo horren ordez toxikomanoaren premia terapeutikoetara hobeto egokitzen den beste tratamendu bat hautatzeko aukera, lege-testuaren 84. artikuluan aurreikusitako moduaren antzera, epaileak “droga-mendeko ez direnentzako” etetearen onuradunei ezarritako betebeharrak hausten diren kasurako. Droga-mendekoak ez direnak pribilegiatuagoak direla esan dezakegu, alderdi horretatik begiratuz gero» (Alcácer, 1995: 906).

2.2.6. ZIGORRA KENTZEA

Probaldia igarotakoan, kondenatuari zigorra kendu ahal izateko mendekotasuna gainditu duela edo tratamenduan dagoela egiaztatu behar du. Baldin-

tza horiek betetzen ez badira, epaileak zigorra betetzea erabaki dezake, edo tratamenduarekin jarraitzea, betiere dagozkien txostenak irakurri ostean eta etendura-epea bi urtera bitarte luzatuta. Alcácer (1995: 909) autorearen ustez, etetea ezohiko moduan luzatuta «neurriaren helburu nagusia betetzea lortu nahi da, hau da, errudunak mendekotasuna gainditzea».

Gai horri gagozkiola, Prats eta Tamarit autoreek diotenez, «tratamenduarekin jarraitzea aukeratzen bada etendura-epea luzatuz, askatasunaz gabetzeko segurtasun-neurrien araubide orokorrean xedatutako printzipioei aurka egiten zaie; izan ere, araubide horren arabera, epaian finkatu behar da neurriaren gehieneko iraupena eta, zehazki, horixe ezartzen da toxikomaniaren salbuesle osatua (ZK 102. art./1995) edo toxikomaniaren salbuesle osatugabea (ZK 104. art./1995) duten kasuetarako, sistema bikarialaren logikari jarraiki» (Prats, Tamarit, 2004: 512).

Oraingoan ere, etetearen araubide orokorrarekin aldeak daude, zeren, probaldia deliturik egin gabe eta segurtasun-neurria urratu gabe gaindituz gero, zigorra ez baita automatikoki kentzen.

Behin etendura-epea amaituta, subjektuak deliturik egin gabe eta epaileak finkatutako jokarauak betez, zigorra kentzea erabakiko da (85.2 artikulua, ZKren 87.5 artikuluari dagokionez).

Droga-mendekoen kasuan zigorraren betearazpenaren etetea aplikatzeko baldintzak azaldu ostean, eta etetearen aplikazio praktikoari helduta, Subijana-ren ustez «botere publikoen jardunean koherentzia-printzipioa zorrotz aplikatuz gero (prebentzioaren, asistentziaren eta erreakzioaren alderdiak bilduz), justifikatuta egongo litzateke mendekotasuna gainditzeko tratamendua terminoaren exegesi zabala egitea, eremu horretan eusteko edo ordezteko estrategiak eta kalteak murrizteko programak txertatze aldera» (Subijana, 2005: 13).

tx
i

o
n

s
f

t
o

e
r

n
m

a
e

3. Delituan berrerortzeari buruzko azterlanak

XABIER ARANA

Berrerortzearekin loturiko azterlanei heldu aurretik, *berrerortzea* esaten dugunean zertaz ari garen zehaztu behar dugu. Villacampa *et al.* (2006: 19-20) lanaren arabera, terminoaren esanahi arruntaz gain, hau da, «legez kanpoko ekin-tza penal bat egin duenak berriz ere egitea», hainbat berrerortze mota bereizten dituzte: polizia-berrerortzea (beste delitu bat edo gehiago egiteagatik behin baino gehiagotan atxilotzen dena), berrerortze penala (berriz atxilotzeaz gain, beste kondena judizial bat jasotzen duena) eta espetxe-berrerortzea (berriro ere kondenatua izateaz gain, beste kausa bat dela-eta berriz ere espetxeratu dena). Polizia-berrerortzea da zabalena, eta, aitzitik, espetxe-berrerortzea mugatuena.

Berrerortzeari buruzko ikerketa enpiriko asko ez dira egin, eta gehienek espetxe-berrerortzea izan dute ardatz (adibidez, Luque *et al.* 2005) edo, bestela, adingabeen justiziar buruzkoak izan dira (Villacampa *et al.* 2006). Gure aztergaiari (ZKren 87. artikuluko etete bereziari) dagokionez, azken erreformaren ostean, dagokion azterketa bibliografikoa eginda, eta gaien adituak direnei kontsulta egin ostean, ez dugu beste azterlanik aurkitu, ikerketa honetan lortutako datuak alderatzeko.

Juan Muñoz eta José Luís Díez Ripolles jaunek ikerketa bat zuzendu zuten *drogak delinkuentzian* gaiaren gainean, eta ikerketa horretan, hainbat organo judizialek (Auzitegi Gorena, Audientzia Nazionala, Justizia Auzitegi Nagusiak, Probintzia Auzitegiak eta Zigor-arloko Epaitegiak) 1999. urtean emandako epaiak, drogekin loturikoak, aztertu zituzten. Droga-kontsumoaren eta berrerortzearen arteko lotura zuzena egotea alde batera geratu zen, eta izatekotan, ondarearen aurkako delituak egin dituzten kontsumitzaileen kasuan onartzen da, zenbait ñabardurarekin: «Gehiengoak uste du drogak berrerortzearekin loturik daudela, baina lotura hori ondarearen aurkako delituak egiteagatik kondenatutakoei soilik lepora dakieke, eta ñabardurak eginez. Errudun horien kasuan, guztirakoaren %40 ingururi dagokie berrerortzearen astungarria» (Muñoz eta Díez Ripollés (2004: 227).

Espetxeetako bozeramaile baten arabera, 2005. urtean espetxean zeudenen erdia baino gehiago (%55) tratamendu-programetan zegoen¹. Pertsona horien-

¹ *El País*, Gizartea, asteartea, 2005/02/08, 30. or. «Espainiako presoen %55 desintoxikazio-programetan dago». E. De B. eta M. A.

tzat, tratamenduan egoteak ez berrerortzeko aukerak areagotzea dakar, zeren «espetxean drogen mendekotasuna gainditzeko programa bat jarraitu duten espetxeratuen %15, soilik, itzultzen baita berriro ere espetxera, hiru urteren buruan, beste delitu bat egiteagatik; aldiz, tratamendurik izan ez dutenen kasuan, %42 dira».

Ríos eta Cabrera (1999) autoreek egiaztatu dutenez, espetxeko errealitatea deskribatzeko garaian, lotura proportzional eta zuzena dago droga-mendeko izatearen eta espetxeratze kopuruaren artean. Ematen dituzten datuen arabera, pertsona bat gero eta gehiagotan sartu espetxean, droga-mendekoen ehunekoa modu progresibo eta linealean handitzen da (espetxean behin bakarrik sartutakoen artean droga-mendekoen ehunekoa %35 zen; alabaina, 10 aldiz baino gehiago espetxeratutakoen artean, droga-mendekoen ehunekoa %84 zen). Hori dela-eta, autore horiek ondorioztatu dute droga-mendekoei tratamendua ematea dela gakoa berrerortzea saihesteko.

Spanish National Report (EMCDDA 2004: 55) delakoan espetxearentzako neurri alternatiboen betetze-mailaren arrakasta-adierazleak bildu dira, hainbat azterlanen arabera. Berrerortzeari dagokionez, bi ikerketa aipatzen dira: Servicio Interdisciplinar de Atención a las Drogodependencias zerbitzuak (SIAD 1997) egindakoa, eta Roca eta Caixal (2002) autoreena. Lehen azterlanaren arabera, «zentroen %93ren ustez betetzeak gizarteratzea errazteko izan ziren» eta, beraz, baita berrerortzea gutxitzeko ere. Bigarren azterlanaren arabera, «tratamendua egin eta ongi amaitzea estatistikoki esanguratsua da berrerortzea murrizteko faktoretzat».

Roca eta Caixalen ikerketa atzera begirako azterlana da, quasiesperimentala eta luzetarakoa. Kataluniako espetxeetako preso guztiak aztertu zituzten, espetxe barruko Komunitate Terapeutikoan edo espetxeaz kanpoko mendetasuna gainditzeko zentro batean tratamendua hasitako preso guztiak, alegia, 1990eko urtarriletik 1995eko abendura bitarte. «Tratamenduan bilakaera ona dutenen artean, berrerortze-tasa %31,93 izan da, eta tratamendua amaitu ez dutenen artean, %54,83. Programaren arabera, berrerortzea honelakoa izan zen: %36,5 komunitate terapeutikoan tratatutako subjektuen kasuan, eta %41,07 espetxe barruko komunitate terapeutikoan tratatutakoen kasuan» (EMCDDA 2004: 60).

Espetxean drogarekin loturiko arazoak dituztenen egoerari buruzko azterlan baten (UNDA (2006:42-43)) ondorioei erreparatuz gero, esanbidez aipatzen da «espetxearentzako alternatiben sistema perfektionatzeko premia, askoz ere onuragarriagoak baitira zigor hori betetzea baino, droga-mendekotasunarekin loturiko arazoak dituztenen berrerortzea saihesteari begira eta pertsona horiek berriz gizarteratzeko prozesua errazteari begira».

Aipatutako azterlan horietan hainbat berrerortze-ehuneko ikus daitezke, eta fenomeno hori hobeto ulertzeko lagungarri izan dakizkiguke. Hala ere, ezin dira elkarren artean alderatu, ez dituztelako irizpide metodologiko berdinak (denbora, delitu motak, berrerortze mota...). Zenbait azterlanetako berrerortze-tasak denboraren poderioz aldatu egin dira. Bilakaera hori azterlan guztietan metodologia berari jarraiki egitea oso baliagarria izan daiteke gertatu diren aldaketak atzemateko eta berrerorleen arrisku-faktoreak eta babes-faktoreak atzeman ahal izateko.

Hala ere, komeni da gogoan izatea legez kanpoko substantzien arloko egungo politika debekatzailleak barne-kontraesan larriak eragin dituela sistema penalean. Baratta (1989:80 eta hurrengoak) autorearen arabera, «berrerortze-indize handia eta prebentzioaren arrakasta eskasa dira espetxe-sistemaren esku-harztearen ezaugarri orokorrak drogaren arazoari dagokionez, eta horrek guztiak justizia penalaren sistema krisian jar dezake, legitimazio- eta sinesgarritasun-krisian; krisi hori are nabarmenagoa da oro har gertatzen dena baino, espetxe-sistemak gizarte-arazoetan duen eraginari dagokionez». Era berean, Roca eta Caixalen azterlan horretan oinarrituta, Tamarit (2003:175) autoreak egiaztatu ditu legez kanpoko drogei buruzko egungo politikaren efektuak, «adikzioaren eta berrerortzearen arteko lotura handian».

tx
i

o
n

s
f

t
o

e
r

n
m

a
e

4. Zigor Kodearen 87. artikuluan aipatzen den droga-mendekoen- tzako espetxe-zigorra etetea aplikatzeari buruzko azterlan kualitatiboa: Elkarrizketa sakonak

XABIER ARANA

Zigor Kodearen 87. artikulua aplikazioaren errealitatera gehiago hurbiltzearen, 8 elkarrizketa sakon egin dizkiegu (bi Araban, hiru Bizkaian eta hiru Gipuzkoan) osasun-arloko, gizarte-laneko eta zuzenbideko profesionalei; profesional horiek guztiek Osasun Zentroetan, Komunitate Terapeutikoetan eta GKEetan lan egiten dute, eta droga-mendekoak terapian hartu izan dituzte, askatasunaz gabetzeko zigorraren betearazpena eten ostean. Elkarrizketak 2007ko irailean eta urrian egin ziren.

1. Zure ustez, zeintzuk dira droga-mendekoentzako askatasunaz gabetzeko zigorraren etete bereziaren helburuak (ZKren 87. artikulua)?

Elkarrizketatuen esanetan, ZKren 87. artikulua helburuak honela labur daitezke: espetxea saihestea eta tratamendua ematea, droga-mendekoa birgaitu eta berriz gizarteratu ahal izateko.

1. abokatu: Azken batean, gai honen guztiaren azpian zera ezkututzen da: askatasunaz gabetzeko zigorrak pertsona berreskuratzera bideratu behar dira, berriz gizarteratzera.

Osasun-arloko profesional batek dioenez, pertsonen aldatzeko aukera ematean dago gakoa, drogekiko harremana eta harreman horien ondorioak aldatu ahal izateko:

1. psikologoa: [...] Drogekiko harremanaren alderdia aldatzeko aukera ematea, hau da, alderdi hori konpontzeko aukera, baina kontuan izanik delituarekin edo hori eragin duenarekin lotura zuzena dagoela, [...]. Nire ustez, funtsean, horixe da helburua, pertsona horri aukera ematea erlazionatuta dagoen zerbaiti konponbidea aurkitzeko.

Helburuak agertuta, birgaitzearen eremuan, osasun-arloaren eta arlo judizialaren arteko tentsioak agertzen hasi dira (aurrerago sakonduko dugu tentsioen gai horretan):

2. *psikologoa*: Nire ikuspegitik begiratuta, helburuak ez dira berdinak eremu judizialean eta osasun-eremuan. Eta helburuak, ziur aski, berdinak ez direnez, azkenean, bi eremuak ez datoz bat.

[...] Sistema judizialak eta osasun-sistemak badute gai bat komunean, birgaitzearen gaia, baina bi birgaitzeak ez dira berdinak, edo gutxienez, erabat bestelako ikuspegitik begiratzen diete. Osasun-eremuan, subjektuaren osasun integrala birgaitzea lortu nahi da, eta horren ondoren, toxikomanien kasuan, gizarteratzea da xede, pertsona horren osasun indibiduala arintzeko bidetzat. Eremu penalean, gizarte-birgaitzea dela uste dut, baina nire ustez, ez du inolako zerikusirik beste eremuetako gizarte-birgaitzearekin, hau da, eremu psiko-sozialekoarekin, osasun-eremukoarekin edo gizarteratze-eremukoarekin. Ez dago elkargunerik. Bestela esateko, lankidetzarako asmoa egon badago, baina ezadostasun-puntu bat ere bai.

Galdera honen erantzunetan maiz agertu da diskurtso hau: droga-mendekoa gaixotzat hartzea, eta, beraz, egoera horrek zerikusia duela egindako delituekin eta espetxeaz besteko alternatibak behar izatearekin:

1. *erizaina*: Droga-mendekoa gaixoa da; hortaz, gaixoa izaki, bestelako bi-tartekoen bidez tratatu beharko litzateke. Lehen helburua gaixoari tratamendua ematea da, baina non jasoko du tratamendua? Espetxean? Edo kanpoan?

1. *psikiatra*: Nire ustez hori da funtsezkoena. Lehenik, toxikomania zenbateraino den gaixotasun aztertu behar da, eta beraz, pertsona hori zenbateraino den gaixo; eta lehenengo kontua hauxe da: adikzio hori delituekin zuzenean loturik ote dagoen edo egon ote den.

2. *Askatasunaz gabetzeko zigorraren betearazpenaren etete berezia aplikatu ahal izateko, ezarritako zigorrak gehienez bost urteko iraupena izan behar du. Zure ustez denbora-muga hori ezabatu egin beharko litzateke, eta droga-mendekotasunaren ondorioz delitu egin duen orori aplikatu?*

1988ko martxoren 24ko zigor-erreforman, Zigor Kode zaharreko 93. bis artikulua bidez, zigorra baldintzapean kentzeko aukera sortu zen drogen mendekotasunak eraginda delitu egiten dutenentzat. Legegileak ezarritako baldintzek (pertsona droga-mendekoa izatea eta delitua mendekotasun horrek eraginda egin izana, zentro homologatu batek behar bezala egiaztatzea pertsona horrek mendekotasuna gainditu duela edo tratamenduan dagoela, eta berrerorlea ez izatea, eta aldeaz aurretik zigorra eteteko onuraren onuradun ez

izatea) itxaropen gehienak mugatu zituzten, hein handi batean.¹ Artikulu horrek «oso bestelako erreakzioak eragin zituen. Erreformaren bultzatzaileen arabera, erreformaren helburuetako bat eremu horretan ordeztu zigor berriak eskaintzea zen, eta ideia horretan oinarrituta, zigorra baldintzapean kentzeko orain arteko aukerak nabarmen handitzen direla diote; are gehiago, Espainian egiazko proba-sistema bat lehen aldiz sartzea dakarrela. Baina hala ere onartzen dute, zenbait kasutan, baldintzapean kentzearen erreforma globala eginda soilik lor daitezkeela aldaketa nabarmenak, eta edonola ere, irekitako aukerak mugatuta daudela prebentzioko premia orokorrekin eta lege-iruzurrak saihesteko borondatearekin.

Aitzitik, doktrina osoak eta parlamentuko sektore garrantzitsu batek harrera oso kritikoa egin diote erreformari, puntu honi dagokionez: 93 bis artikulua muga askorekin sortu izana obsesio bermatzaileengatik eta prebentzioko obsesio orokorregatik izan da, eta hori dela-eta, ez dakar hobekuntza nabarmenik lehengo 93. artikuluekin alderatuta; beraz, ez da operatiboa, eta gainera, inkongruentea eta atzerakorra ere bada, alderdi askotan lehendik zegoen araudia gogortu egiten du-eta» (Díez Ripollés 1989: 112-113). Zigor Kode berria indarrean hasita, 87. artikulua arabera, muga hiru urtetan jarri zen, baina ez zen aski, droga-mendekoei egindako delitu askotan ezin baitzen aplikatu. Elkarrizketatutako abokatu batek 87. artikulua mugak laburbildu ditu, azken erreformaren aurretik eta ondoren; hona hemen:

1. abokatu: Oker ez banago, 2003. urtera bitarte, muga 3 urte zen, eta orduan kexu ginen delitu asko kanpoan geratzen zirelako eta ezin zitzaielako etetea aplikatu; bereziki, osasun publikoaren aurkako delituak eta larderiaz egindako lapurretak. Delitu mota hori droga-mendekoei egiten dute, oso maiz. Gure ustez kontraesana zen droga-mendekoei bereziki zuzendutako etetea izanik, droga-mendekoei gehien egiten dituzten delitu batzuen kasuan aplikatu ahal ez izatea. Alde batetik, arazo hori konpondu da muga 5 urtera luzatuta, baina beste aldetik, zenbait delitu oraindik ere kanpoan geratzen dira, bereziki, osasun publikoaren aurkako delituak; izan ere, delitu mota horietan berrerortzea gertatzen da, eta, hortaz, gutxienez 6 urteko zigorra izaten dute. Osasun publikoaren aurkako delitu oso garrantzitsuak ere kanpoan geratzen dira; droga-trafikoan sartuta dabilen jendea izaten da, eta askotan, adikzioaren eraginez, azken kate-maila izaten dira. Gutxienez 9 urteko kondenak izaten dituztenez, ezin dute, inolaz ere, etetea lortu.

Elkarrizketa sakonetan parte hartu zutenen sektore bat ez dago ados adin-muga jartzearekin, zerren, delitu-jardueraren azpian dagoen arazoa droga-men-

¹ Gai horietan gehiago sakondu nahi izanez gero, ikus De la Cuesta (1989) eta Sáez (1989).

dekotasuna baldin bada, eteteak ez du baldintzatuta egon behar zigorraren urte kopuruaren arabera.

2. *abokatua*: [...] muga bat jartzeak ez du inolako zentzurik. [...] Gauza bakarra lortzen da: epaiketa elektoralizatzea; beraz, interesgarriena da zigorra fiskalarekin epaitegian negoziatu ahal izatea, etetearen sistemarekin aurrera egin ahal izateko. Hori horrela, dena delakoarengatik, delitua mailaz zertxobait igotzen bada, zigortuen artean desoreka sortzen da [...], ate asko ixten zaizkio, eta beste norbaitek, 5 urteko zigorrarekin, irekita ditu. 6 hilabeteko aldeak ezin du desoreka hori eragin. Muga soberan dago, guztiz soberan.

Elkarrizketa sakona erantzun dutenek terapiaren eremuan eta gizarte-lanaren eremuan badute prestakuntza, eta haien ustez, zigorra zenbat urtekoa den baino gehiago, hobe da bestelako irizpide batzuk kontuan izatea zigorra baldintzapean eteteko, eta, bereziki, kasuz kasu aztertuz pertsona bakoitzaren profila.

2. *psikologoa*: Hemen sartzen dira balioespen pertsonalak edo bidezkoa litzatekeena. Ez da bidezkoa legeak dioelako, baizik eta bidezkoa da etikaren edo beste pertsonetik harremanaren ikuspegitik begiratuta. Begira, nik pertsonetik tratamendua nola ulertzen dudana azalduko dizut, eta gero, orain hitz egiten ari garen honetan aplikatuko dugu. Adibidez, botikei edo tratamenduei buruzko ikerketan, jendeak zera esaten du: tratamendu hau beste hori baino hobea da, edo neurri hau beste hori baino eraginkorragoa. Horri buruzko informazio guztia biltzen duzunean, konturatzen zara ez dagoela %100ean eraginkorra den tratamendu bat pertsona horientzat. Pertsona batzuen profilak hobeto egokitzen dira tratamendu batzuetara besteetara baino. Nire ustez, pertsonen profilak aztertu beharko genituzke pertsona horiekin, profil horiekin esku hartzeko neurri egokiak finkatze aldera. Zigorra betetzearen eremuan, beste horrenbeste gertatzen da. Toxikomanoen profil jakin batzuek ez lukete sekula espetxean sartu beharko, eta beste batzuk, aldiz, delitugileak dira; drogak erabiltzen dituzte, bai, baina delitugileak dira, hau da, arriskutsuak izan daitezke, eta kautelazko bestelako neurriak hartu beharko dira, baina lan hori ez dagokio osasun-sistemari. Toxikomanien munduan sartutako jende asko, baita osasun mentalaren munduan sartutako jendea ere, egoera jakin batzuetan aurkitzen da gaixotasunaren prozesuak bultzatuta, ez nortasun-ezaugarri hori dutelako, ez psikopatak direlako eta jendea bost axola zaielako, eta azkenean jendearen aurka jokatuko dutelako; baizik eta gaixotasunaren ondorioz sortutako egoera jakin batzuetan sartuta egoten direlako, ezinbestean. Kasu horietan, egiaz, profila ezberdina da. Eta horrelako pertsonen profil berezietan, espetxean sartzeak lur jota utziko ditu, eta are gehiago, haien osasun-prozesua kaltetu egingo du. Kasu guztietan ez, ziurrenik, baina gehientsuenetan bai, nire ustez. Kontua da profilak bereiztea: zein profil sar daitekeen espetxean eta zeini ez zaion komeni, inolaz ere, espetxean sartzea; guztiok jakin badakigu, gainetik bada ere, espetxea zer den, nola antola-

tzen den, eta kasu horretan, pertsona horiei mesede baino gehiago kalte egingo lieke. Kasu horietan, nik ez nituzke espetxean sartuko, egun bat bera ere. Beste pertsona batzuk arriskutsuak izan daitezke, baina hori beste eztabaida bat da: espetxeak betetzen ote du birgaitzeko eginkizuna?, eta abar.

3. *Pertsona bati etete berezia aplikatzen bazaio, pertsona horrek eta erreferentziako zentroak konpromiso jakin batzuk hartu behar dituzte; deskribatuko al zenuke pertsona horri hartutako konpromisoen berri emateko prozesua?*

Lehendik jasotako datuen arabera, ZKren 87. artikulua oso maiz aplikatzen da EAEko epaitegietan; hori dela-eta, artikulua aplika dakiekeen droga-mendeko askok badute artikulua berri eta badakite zein betekizun eskatzen diren etetea aplikatzeko. Informazioa hainbat iturriren bidez ematen da, kasu gehienetan. Hona hemen iturri horiek:

a) *Abokatuak*: Ohiko moduan, abokatuak jakinarazten die bezeroei indarreko legedian zein aukera eskaintzen zaizkien droga-mendekoei. Hala ere, eremu sozio-sanitarioan ere ohikoa izaten da kexak entzutea zenbait abokaturen interes falta –baita utzikeria ere– dela-eta, batez ere, ofiziozko txandatan eta bezeroak droga-mendekoak direnean.

b) *Parekideen artean ahoz aho*: Zenbait kasutan, ZKren 87. artikulua aplikatu izan zaien pertsonak, beren esperientzian oinarrituta, informazio-iturri izaten dira ZKren artikulua horren aplikazioa zein konplexua den ez dakitenentzat.

c) *ZBLZ, ALEZ*: Drogen-mendekotasuna eta delituekin loturiko arazoak dituzten pertsona asko ZBLZ Zigor-betearazpenetan eta Birgizarteratzeetan Laguntza emateko Zerbitzuarekin edo ALEZ Atxilotuari Laguntza Emateko Zerbitzuekin harremanetan egon dira. Justiziarekiko lankidetzaz zerbitzu horietan lan handia egiten dute, besteak beste, ZKren 87. artikulua aplika dakiekeen pertsonen informazioa emanez.

d) *Osasun Zentroak, Elkarteak, GKEak...*: Kasu gehienetan, programa terapeutiko jakin batean sartzen direnerako, abokatuak edo antzeko prozesuren bat aurretik bizi izan duen norbaitek eman diete informazioa. Bestela, alternatiba terapeutikoetako zerbitzuetan bertan ematen zaie egoeraren berri. Eta are gehiago, elkarte eta GKE jakin batzuek operadore juridiko espezializatuak ere izaten dituzte, eta droga-mendekoari informazioa eta aholkularitza emateaz gain, ZKren 87. artikulua aplikatzeko bete beharreko izapideak gauzatzen dituzte.

Artikuluak aplikatzeak dakartzan abantailak eta arriskuak azaltzen dira, gehienbat. Hasiera batean, ZKren 87. artikulua aplika dakiokkeen orok ez daki zigorra eteteak zer dakarren:

2. *abokatua*: [...] Gaur egun, oraindik ere, erabiltzaileak uste du neurri hori espetxearentzako alternatiba bat dela, baina betetzeari dagokionez, zeren zigorra espetxean bete ordez, «zentro batean beteko baitut». Baina hori ez da egia; zigorra etenda geratzen dela azaltzen zaio, kondena-epea alde batera utzita; 3-5 urteko epea ematen zaio, birgaitzeko programa bat amaitu behar du, eta amaitzen duenean, kausa artxibatzea proposa daiteke, eta hori gertatzen da, baina programa alde batera uzten badu edo bota egiten badute, Epaitegiak espetxean sartuko du berehala, eta zentroan igarotako denborak ez du balio zenbaketarako. [...] Birgaitzeko zentroan egondako denbora ez da kontatzen zigorra betetzen emandako denboratzat. Eta hori guztia behin eta berriz azaltzen zaio, hartzen dituen erantzukizunez jabetu dadin.

1. *abokatua*: [...] Zera esaten zaio, zigorra eten egiten da baldintza batzuk betetzen badira, baina ondorioak ere izango ditu: abantailak baditu, baina baita eragozpenak ere. Guk, edo behintzat nik egiten dudan lanean, argi eta garbi azaltzen diegu eteteak arrisku larria ere baduela, eta are gehiago droga-mendeko izanik, zigorra betetzen hasi behar izateko arriskua, zigor osoa bete behar izango dutela eta zentroan igarotako egunekin ez zarela ari ezer betetzen, ez zarela ari ezer ordaintzen; zigorra etenda dago baldintza jakin batzuk betez gero. [...] Nik dakidanez, argi eta garbi adierazten diegu tratamendua bete behar dutela; bilakaera positiboa edo negatiboa izan dezakete, baina tratamendua bete egin behar dute. Engantxatuta egon eta izan ditzakezun zailtasun edo kontsumoei aurre egiteak ahalbidetuko dizu aurrera egitea. Horixe pentsatzen dut nik. Batez ere, jendea ez dadin harrituta geratu etetea ezeztatu eta zigorra osorik bete behar duenean. Gutxitan gertatzen da, baina batzuetan, jendeak nahastu egiten ditu eteteak eta espetxean bete beharreko zigorrak, eta hori oso argi utzi behar da [...].

Eremu sozio-sanitarioko profesionalek, beren esperientzian oinarrituta, hainbat jardunbide bereizten dituzte delitu bat egin ostean: sektore batek (gero eta txikiagoa da) ez du prozedura ezagutzen, eta beste batzuek (*errentista* esaten zaie) prozedura ezin hobeto ezagutzen dute eta prozedurari aurre hartu ere egiten diote, euren kasua epaitzen denean onura lortu ahal izateko. Epaiketa baino lehen, osasun-zentroren batera joaten dira eta droga-mendekoak direla aitortzen dute, epaiketan dagokion unean alegatu ahal izateko.

Zentro terapeutikoetan, jasoko duten tratamenduari buruzko informazioa ematen zaie, eta tratamendua alde batera utziz gero, epaileari jakinarazi behar diotela:

Gizarte-langilea: Hona etortzen den gaixoak jakin badaki, kondena etetea zer den eta horrek zer dakarren ongi ezagutzen duelako. Etetea bete ahal izate

aldera, tratamendu bat jasotzeko zein baldintza bete behar dituen azaltzen zaio, prozesua nolakoa den eta baldintzak zeintzuk diren. Bera etetearekin dator, eta epaileak esaten digu guk berari jakinarazi behar diogula, etetearen jarraipena egin behar dela. Guk tratamenduaren baldintzei buruzko informazioa ematen dugu, bete behar direnak, jarraipenaren baldintzak, eta abar. Prozesua zein den tratamenduaren ikuspegitik begiratuta, eta guk epaileari aldizka informazioa emango diogula, epaileak esandako maiztasunarekin. Eta zer jakinaraziko diogun ere bai. Funtsean, kontsultetako erregularitasunari buruzko informazioa ematen da. Guk kontratu terapeutikoa egingo dugu droga-mendekoarekin.

[...] Kondena eteteak zer dakarren badakite; haiek badakite zein aukera dituzten, abokatuaren bidez: deliturik ez egitea eta tratamendua betetzea. Zentroak epaileari informazioa emateko betebeharra du, egoera hori betetzen ote den. Zein baldintzetara egokitu beharko duen, eta baldintza horiek kasu bakoitzaren bilakaeraren arabera alda daitezkeela.

Informazioak argia izan behar du, eta informazioa jaso behar duen pertsonaren gaitasunaren arabera egokitu behar da: goian aipatu ditugun alderdiak –zigorra eten egiten dela, ez ordeztu; ezin duela deliturik egin eta tratamendua bete behar duela; eta edozein gorabehera esanguratsu gertatuz gero epaileari jakinarazteko betebeharra– oso gai garrantzitsuak dira, eta ZKren 87. artikulua aplikatzea nahi duen orori jakinarazi behar zaizkio.

4. *Tratamenduaren arduradunek egindako txostenak, zein maiztasunekin eta zertarako egiten dira?*

Txostenen bidez, epaileek badakite ZKren 87. artikulua aplikatu dieten pertsonen bilakaera nolakoa den: tratamenduan ote dauden eta haien bilakaera nolakoa den. Azken urteotan, txostenen maiztasuna aldatu egin da, hainbat alderdiren arabera: epailea, delitu eta zigor mota, profesional sozio-sanitarioen kexak (ohiko dokumentazio gehiegi eskatzen zaielako). Hilabete bat, hiru edo sei hilabeteko maiztasuna izan daiteke. Dena den, gorabeheraren bat jazoz gero (bertan behera uztea, tratamendutik kanporatzea...), automatikoki epaitegian jakinarazten da.

Gaur egun, bai Bizkaian, bai Gipuzkoan informazioa zentralizatu dago Zigor-betearazpenetan eta Birgizarteratzeetan Laguntza emateko Zerbitzuaren (ZBLZ) bitartez. Tratamendu-zentroek hilean behin bilera egiten dute ZBLZ zerbitzuarekin eta ZKren 87. artikulua aplikatu zaienen bilakaeraren berri ematen dute. Gero, ZBLZ edo ALEZ zerbitzuetatik txosten pertsonalizatuak eskatzen dira, baina mekanikoki eskatzen zirenean baino gutxiago.

Profesional sozio-sanitarioen ikuspegitik begiratuta, txostenen egiazko erabilgarritasuna hartzailearen arabera da. Profesional horientzat oso mugatua; batzuen ustez *ez du inolako erabilgarritasunik*, edo *oso erlatiboa* da. Hala ere, batzuetan erabiltzaileentzat erabilgarria izan daiteke:

1. *psikiatra*: Gaixoarentzat, batzuetan baliagarria izan daiteke, terapiari dago-kionez, «indarberritu» egiten baita. Une konplikatuetan, eta toxikoez ari garelarik, guztiok ongi dakigu zertaz ari garen izan daitezkeen une zailetan, berrerortzeak eta horrelakoak, batzuetan, zenbait gai birplanteatzeko aukera ematen digu, une zailak aztertzeko, eta, agian, tratamendu «terapeutikoagoari» heltzeko. Ziurrenik [...], erabilgarritasuna jarraipen hori izango da, zerbitzu judizialeatik egiten den kontrola, eta zerbitzu horietan ikus dezakete bilakaera nolakoa den edo epaian xedatutakoa betetzen ote den eta nola. Tratamendu motetan guk egin ditzakegun aldaketak [...] hasieran, niregana etengabe etor daiteke, maiz, eta aurrerago, elkarrizketetako kontrolak bakandu bilakaeraren arabera, baina une zailetan agian berriz ere lehengora itzuli behar da. Gure ustez hortik jo behar da. Kontu horri dagokionez, guk justiziatik eskatzen digutenari erantzuten diogu, baina horrek ez du esan nahi guk horixe proposatuko genukeenik gaixo baten kasuan, dimentsio judizial hori izango ez balu.

Profesional sozio-sanitarioen eremutik, etengabe txostenak egin behar izateak *lan handia* ematen diela kritikatzan dute, karga administratiboak areago-tzen dituztelako, bereziki, txostenak egin beharreko pertsonen kopurua handia denean. Azken urteotan, ZBLZ zerbitzuarekin koordinatu denez, gai hori arindu da, hein batean. Dena dela, osasun-arloko zenbait profesionalak nahiago du auzitegiko medikuek egitea txostenak, eta ez osasun-zentroetan.

2. *psikologoa*: Guretzat nahastea izaten da. Lankide batzuk zera esaten dute: neurri judiziala baldin bada, txostenak auzitegiko medikuek egin ditzatela. Auzitegiko medikuak txostena egin dezala, eta azkenean, epaileak entzungo dio, egiaz. Zer gertatzen da? Ez dela egingarria, zeren azkenean lanez lepo egongo bailirateke eta egin behar dutena ez lukete egingo. Edo auzitegiko zerbitzuak areagotzen dira, edo azkenean, neurri horrek ere ez luke zentzurik izango.

5. Drogen mendekotasunik ez duen inor saiatu al da ZKren 87. artikuluan proposatutako etete berezia lortzen? Kasu horietan, zer egin behar da?

ZKren 87. artikuluan ere bada pikarokeriarik, eta behin baino gehiagotan gertatu izan da droga-mendeko ez direnak artikulua horretan aurreikusitako etete berezia lortzen saiatu izana, espetxean ez sartzeagatik. Elkarrizketatutako osasun-arloko zenbait profesionalen eta abokatuak baten ustez, «ez dira kasu

asko izan», baina beste abokatu baten hitzetan, estrategia hori «ohiko moduan» erabiltzen dute abokatuak, bereziki, osasun publikoaren aurkako delituetan. Droga-mendekotasunen gaietan aditua den psikologo batek antzeko iritzia eman digu:

1. *abokatu*: Nire ustez oso ohikoa da defentsa-estrategian (kasu jakin batzuetan, noski) bezeroa droga-mendeko dela esatea, etetea lortu ahal izateko, zeren, azkenean, eta nahiz eta batzuetan 87. artikulua mekanismo edo betekizunak, segurtasun-neurriak [...] kritikatzeko ditugun, espetxera ez joateko aukera gehien dutenak droga-mendekoak baitira. Horrelako kasuak Audientzian gertatzen dira gehienbat, ez Zigor-arloko Epaitegian, eta bereziki osasun publikoaren aurkako delituetan, zeren, azken batean, droga-mendekotasunarekin loturiko arazorik ez duenak ez baititu lapurreta txiki edo ebasketa horiek egiten.

2. *psikologoa*: Badago mundu horretan sartuta dagoen jendea; norbait kontsumitzailea denean diagnostiko bat egiten da eta hor, egiaz, argi eta garbi ikusten da kontsumitu egin duela. Baina badira errentistak ere, hau da, euren egoera «mozorrotzen» dutenak bigarren mailako onura lortzeko. Trafikatzaile askok egiten dute hori: saldu egiten dute, baina kontsumitu ez, garbi daude, eta epaiketa bat izan dezaketela uste badute, guregana etorri, kontsulta bat eskatu eta tratamenduan hasi nahi dutela esaten digute; hartara, badute abala epaiketa hasi baino lehenagoko datarekin. Pertsona horiei gerneru-analisia egiten diezu kontsumitzen ari direla egiaztatzeko, eta garbi daude! Alabaina, guri ez digute hori esaten, duela 4 egun kontsumitu dutela baizik. Beste batzuk, ordea, kontsumitu egiten dute positiboa emateko analisi horretan, baina gero ez dute inolako konplikaziorik.

Alderdi horiek guztiek arazo bat baino gehiago eragin dezakete tratamenduzentzietan; izan ere, eskaera jakin batzuk mediatizatuta daude eremu sozio-sanitariotik kanpoko gaiak direla-eta. Pertsona bat droga-mendekotzat diagnostikatzeko ondorio garrantzitsuak ditu: pertsona horrek nahaste jakin bat duela esatea da, «nolabait “etiketatzea”, alegia» (Morera 2000:519-520). Autore horrek berak droga-mendekotasunarekin loturiko *gaindiagnostikoaren* eta diagnostiko faltsuaren arriskuak adierazi dizkigu, asistentziarekin loturiko gatazka eta dilema etikoen artean; gaindiagnostikoari dagokionez, aldizkako kontsumo jostagarriak gaixotasuntzat edo nahastetzat diagnostikatzen diren kasuak sartzen dira, baita substantzien erabilera-eredu jakin batzuk ere, droga-mendekotzat hartzeko eskatzen diren arauarekin zerikusirik izan gabe. Diagnostiko faltsuari dagokionez, besteak beste, erantzukizun penalei aurre ez egiteko erabiltzen da.

Osasun-arloko profesionalak jakin badakite errealitate hori oso konplexua dela, eta askotariko egoerak ikusten dituzte: Zenbait jendek kontsumoak puzten ditu (bereziki kanabisa eta kanabisaren eratorrien kontsumoa), beste batzuek

helburuak ezkututzen dituzte eta beste zenbaitek argi eta garbi adierazten du terapiara jo dutela ziurtagiria behar dutelako tratamenduan daudela egiaztatzeko epaiketaren batean. Komeni da gogoratzea kondena penal bat saihesteko itxurak egitea psikiatriako eskuliburuetan deskribatuta dagoela, arazo gehigarri moduan, eta agian arreta klinikoa behar izatea (DSM-IV-TR: 2003).

Hasierako eskaera egin ostean, balioespenaldia izaten da eta hainbat proba egiten dira diagnostikoa egiteko. Kasu gehienetan,aldi hori igaro ondoren arazoaren diagnostiko egokia egin daiteke, baina ez beti. Nahasterik ez dagoela argi eta garbi ikusten den kasuetan, tratamendua eskatu duenari planteatzen zaio gaia. Hasieran tratamendua jasotzeko eskaera egin duen zenbait jendek zalantzak izan ditu aurrera jarraitzeko, terapian sartzeko zein konpromiso hartu behar dituzten azaldu zaionean, ondorio guztiak jasan behar baitira. Elkarrizketa sakonean parte hartu zuen psikologo batek egoki laburbildu ditu paragrafo honetan landutako alderdiak:

2. *psikologoa*: Diagnostikoaren prozesuan, printzipioz, hainbat proba egin behar dira diagnostikoa lortzeko. Baina diagnostiko guztietan subjektibotasunak ere badu tokia, ez dago zehaztasunik, ez dago probarik norbaitek adikziorik duela frogatzeko. Zeren noizbehinkako kontsumoa ez da adikzioa, kontsumo errepikatua ere ez; adikzioa baino gehiago, abusua izan daiteke. Irizpide diagnostikoak gauza bat dira, eta substantzien erabilera beste bat. Zenbait jendek hartzen ditu horrelako neurriak; orduan, zuk, printzipioz, tratamendu horretan esandakoa bete egiten duzu, eskatu egiten dizutelako, eta diagnostiko bat egiten duzu. Demagun zuk egin beharreko elkarrizketak egiten dituzula eta hark positiboa ematen duela, baina gezurretan ari da. Zuk zalantza onartzen duzu, badakit gezurretan ari zarela, baina ezin dizut esan, ezin dizut argitu, ezin zaitut aurrez aurre hartu eta hauxe esan: «aizu, nire ustez hau guztia gezur hutsa da», zeren erreakzioa honelakoa izango bailitzateke: «ez, ez, ezta pentsatu ere». Ez duzu beste aukerarik, eta hark premia bat baldin badu, zuk premia hori bete behar duzu osasunari dagokionez. Zer gertatzen da? Denborarekin dena agerian geratzen dela.

Beste batzuek, gezurretan aritu gabe, zera esaten dizute zuzenean: «begira, arazo bat daukat; deitu egingo naute, nik ez dut kontsumitzen, baina hemen nagoela egiaztatu behar dut» eta orduan nik zera esaten diet: «nik ezin dut esan heroina kontsumitzen ari zarenik, baina agian baduzu beste nahasteren bat, eta nahaste horrengatik hemen egon zaitetzke. Orain, ikus dezagun zein nahaste mota den, irizpide diagnostiko baten arabera izan behar baitu». Zer jar dezaket? Epaiketaren aurreko egokitze-nahastea, eta nahaste bat duela antsietatearekin lotuta. Baina pertsona horrek argi eta garbi hitz egin duenez, eta osasun mentalaren arloko arazoren bat izan dezakeenez, sendatzeko eskubide guztia du eta txosten bat egiteko garaian, tratamenduan dagoela esango diogu.

Beste kontu bat da epaileak hori onartzea edo ez onartzea, drogekin loturarik ez duelako, baina hori beste gauza bat da.

Terapia-baliabidearen gezurrezko erabilerarekin batera, ZKren 87. artikulua-
ren onuren onuradun izan daitekeen beste jende mota bat ere aurki dezakete
osasun-arloko profesionalek eta ez dute txostenik eskatzen gaiaz «paso» egiten
dutelako.

6. *Espetxeratzea saihesteko tratamendu bat jarraitzea nahikoa motibazio al da mendekotasuna gainditzeko tratamendua egin eta arrakastaz amaitzeko?*

Osasun-arloko profesional askok garrantzi handia ematen dio terapian norbe-
raren borondatez hasteari (Cesoni: 1994), baina beti ez da hasten lehen mailako
motibazioek bultzatuta. Zenbait kasutan, terapia-eremura behartuta hurbiltzen
dira, bigarren mailako motibazioak, droga-mendekoaren borondatez kanpokoak,
direla-eta. Tratamendu bat jarraitzea eta espetxean ez sartzea ez da, berez,
nahikoa motibazio mendekotasuna gainditzeko tratamendua egin eta arrakastaz
amaitzeko, baina abiapuntua izan daiteke, terapiarekin harremanetan hasteko bul-
tzada garrantzitsua, aurrerago birgaitzeko oinarriak finkatzearen. Droga-mendeko
izandako jende asko tratamenduan hasi zen espetxean ez sartzeagatik, kontsumi-
tzeari uzteko inolako asmorik gabe, baina gaur egun, herritar gehienek antzeko
bizimodua dute. Hori dela-eta, bigarren mailako motibazio horiek ere kontuan
hartzeko modukoak dira, behartuta ezarri arren. Espetxearentzako alternatiba te-
rapeutikoei buruz delitugile toxikomanoekin egindako aurreko ikerketa batean (Elzo
et al. 1996:138), espetxearentzako neurri alternatiboetan sartu zen jendeak guztiz
positibotzat hartzen zituen neurri horiek, zerengatik, besteak beste, «espetxearekin
etetea eta, bereziki, presoan artean nagusi diren balioekin etetea» ekarri baitzien.

1. psikologoa: Abiapuntua da, elementu motibatzailea, alegia; elementu hori
bera nahikoa justifikazio da pertsona batek eskaera bat egin ahal izateko. Eta
egia esan, zenbait jendek ez du batere garbi ikusten kontsumitzeari uzteko eta
alderdi horiek lantzeko kontu hori, baina droga-mendekotasunak eragindako
nahasteren bat dagola nabaria denean, pixkanaka-pixkanaka gai horri heldu be-
harko diogu; beste eskaera mota bat sustatzen has daiteke, eta une jakin batean
eskaera hori izan daiteke, soilik hori, baina jakin badakigu zera dela [...] aliantza
terapeutiko bat dagoen bezain laster [...], zuk lotura bat erein baduzu, gure lana
ezin da egin lotura hori gabe, eta aliantza «terapeutiko» esaten diogun hori ezarri
gabe. Hori guztia gabe ezin izango dugu askorik egin, baina aliantza terapeutiko
hori lortzen badugu, helburuak betetzea lortuko dugu.

2. *psikologoa*: Egia da, bai, norbait tratamendu-zentro batean sartzen denean aukera handiagoa duela zentroari «atxikitzeko», kalteak murrizteko neurriak dira; arazoak dituen norbaiten ondoan baldin bazaude, zenbat eta gertuago egon, orduan eta aukera handiagoak daude arazoak saihesteko. Baliteke pertsona horrek kontsumitzeari utzi nahi ez izatea, baina zuk kontsumitzeko modu egokiagoetara bidera dezakezu, edo agian, une jakin batean, berak erabaki dezake kontsumoa murriztu edo eten egin nahi duela. Hori guztia egin dezakezu, bere ondoan zaudelako. Ildo beretik, neurri judizial batek eraginda etortzen bazara ere, aukera bat izan daiteke. Baina gatozen berriro ere profiletara. Mundu guztia ez. Pertsona jakin batzuk sartzen dira aukera horretan, eta besterik gabe, horregatik etortzen dira. Zenbat? Ezin dizut kopururik esan, oso zaila da. Baina izan badira.

Psikiatra batek dioenez (kasu guztiak kasuz kasu aztertzearen aldekoa da), legearen esku-hartze hutsarekin baliteke pertsona batek berriz ere deliturik ez egitea. Beste hainbat kontu ere esan dizkigu:

1. *psikiatra*: Ni kasuz kasu aztertzerantz itzuliko nintzateke, pertsonaz pertsona. Bigarrenik, nire ustez, zenbait jenderen kasuan, legeak esandako hitz bakarra nahikoa izaten da. Legeak esku hartzearen ondorioz [...] pertsona horrek ez du deliturik egingo berriro; batzuetan, horixe bakarra nahikoa izan daiteke.

[...] Beste batzuentzat, aldiz, maldan behera joateko unea izan daiteke. Kontsumorik eza baina haratago doazen gaiak lantzeko unea, normalki beste alderdi subjektiboak ere izaten direlako, alderdi psikiatrikoak, alegia, tratamendua eskatzen dutenak, eta tratamenduan ez da soilik aztertzen kontsumitzen duen edo ez duen kontsumitzen, deliturik egin duen edo ez ote duen egin. Beste eragozpen mota batetz ari gara, pertsonaren arazo subjektiboez, eta aurreko kontsumoa edo bestelako ekintza batzuk arazo horiekin loturik zeuden; beraz, guk ere ahalegina egin behar dugu denbora hori, etete hori baliatu eta terapiari dagokion zerbait martxan jartzeko. Batzuekin lortzen dugu; beste batzuekin ez, baina gutxienez kontsumorik gabeko aldi bat izatea lortzen dugu, eta gero, bakoitzak, kontsumorik gabeko aldi horrekin gauza bat edo bestea egingo du. Batzuek zera erabakitzen dute: «ez dut gehiago kontsumituko». Kontsumitu gabe hobeto dagoela ikus dezakete; beste batzuentzat, beste kontu batzuk egongo dira. Kalteak murrizteko programetan eta antzekoetan, helburua hauxe izaten da: kontsumitzeagatik arazorik ez izateko moduko kontsumoa egin ahal izatea. Norberak bere ondorioak edo helmugak izango ditu.

7. Zer gertatzen da mendekotasuna gainditzeko tratamenduan jarraitzeko betebeharra ez bada betetzen?

ZKren 87. artikulua eraginpean dagoen orok hartutako betebeharrak betetzen ez dituenean *berehala jakinarazi* behar dugu, hau da, delituren bat

egiten badu edo tratamendua alde batera uzten badu. Praktikan, eremu sozio-sanitarioko profesionalek diotenez, ez da ehuneko ehunean betetzen. Dagokion epaitegira lehenago edo beranduago jakinarazten da kasuaren bilakaeraren arabera eta pertsonaren arriskutsutasunaren arabera. Ez da arraroa egun bat edo bi itxarotea, terapia-prozesua utzi duen pertsona horrek berriz ere terapiari heldu nahi ote dion ikusteko. Hainbat autoreren arabera, «tratamendua eteteak ez du esan nahi porrot egin dela, drogekiko adikzioen kasuan, bederen» (Neuman 1991:148), zeren, besteak beste, «droga-mendekotasunaren erabateko birgaitzea lortzeko prozesu konplexua bete behar baita, eta berrerortzeak, tratamendua partzialki uztea edo aldi baterako uztea, nahiz borondatearen ahulaldi arin edo larriak ere barnean hartuta» (González Zorrilla 1990:25). Osasun-arloko profesional gehienek ustez, kontratu terapeutikoa noizean behin ez betetzeak ez du esan nahi tratamendua alde batera utzi denik.

Eremu sozio-sanitarioko langileek zuhurtasun-tartea izaten dute: interpretazio zorrotzetik babes-jarrera izateraino irits daitezke zenbait kasutan. Profesional bakoitzak bere irizpide terapeutikoen arabera moldatzen du egoera, kasuaren bilakaera eta izandako esperientziak kontuan izanik.

2. *psikologoa*: Ez dizut xehetasunik azalduko, baina guk ere baditugu «tranpak» pertsona jakin batzuekin. Zergatik? Harreman terapeutikoan, kasu askotan, konfiantzazko harremana egiten duzulako, eta badakizulako jende hori prozesu terapeutikoa betetzen ari dela, egiaz, eta esaten badizu ezin duela etorri, benetan konpromiso bat duelako izaten dela edo arazo bat duelako. Baina beste batzuek iruzur egiten dizute. Prozesu terapeutikoa behar bezala betetzen ari direnekin konfiantza izaten duzu eta malguago joka dezakezu; beraz, hitzordu batean kale egiten badu ez diozu epaileari esan beharrik. Ohikoa ez den egoeraren bat gertatuz gero, lapurreta batean inplikaturik suertatzen bada berak ezer egin gabe, baina lapurreta batean inplikaturik dago nahi gabe, eta hori ere jakinarazi beharko genuke, zeren mota horretako edozein gertakari jakinarazteko eskatzen baitu epaileak. Beste gauza bat da guk jakinaraziko diogula, baina gure iritzia emanez; iritzi hori kontuan hartu edo ez hartu. Prozesuan ongi dagoen jendeak txosten positiboak izango ditu; gaizki dagoen jendearen kasuan, froga objektiboetan ateratzen dena esango dugu. Komatxo artean, batzuetan penaz. Hau da, askotan, zentroaren eta terapeutaren arabera izaten da hori. Batzuek oso zorrotz jokatzeko dute, objektiboa dena objektiboa da; eta beste batzuk malguagoak dira eta aukerak ematen ahalegintzen dira. Ez dago prozedura jakin bat: «hau egin behar da eta hau da egin daitekeen gauzarik hoberena», ez dago horrelakorik. [...] Zu jendearekin harremanetan zaude, eta horren arabera, jende horrekin zer egin dezakezun ikusiko duzu. Batzuk kalamidade hutsak dira: hona etortzen direnean ez zenuke zentimo bat bera ere apustu egingo haien alde; gaindosi batekin edo espetsuekin bukatuko dutela pentsatzen duzu, baina,

bat-batean, tratamendutik atera eta erabat birgaituta daude, ederki funtzionatzen dute. Eta hain justu aukerak emateagatik. Beste batzuetan, oso ongi ibiliko direla pentsatzen duzu, mila aukera ematen dizkiezu, baina ez dute bat bera ere baliatzen eta, azkenean, desastre hutsa da. Esperientziak hori guztia erakusten dizu, baina, azkenean, ez da teknika bat aplikatzea, esperientziak lagunduta jakintza aplikatzea da kontua, eta, tamalez, hori da gertatzen dena, ez dagoela «guztiok bete beharreko eskuliburu bat».

Epaitegiari jakinarazten zaionean tratamendua utzi duen kasu bat dagoela, gehienetan, zigorraren etetea berehala ezeztatzen da eta bilatzeko agindua ematen da, pertsona hori espetxean sar dadin. Kasu batzuetan, epaileak edo hark izendatutakoak tratamendua utzi duen pertsonari deitu eta argi eta garbi azaltzen dio tratamendua hartzeko azken aukera duela; bestela, espetxean sartuko dela. Zenbait kasutan, epaileak emandako ultimatum hori motibazio izaten da droga-mendekoarentzat eta tratamendura itzultzeko baliatzen dute aukera. ZKren 87. artikuluko etetea ezeztatzeak hainbat ondorio ditu: espetxeratzeaz gain, artikulua hori berriz ere aplikatzea askoz zailago izatea.

8. *Praktikan, zer eragozpen izaten dira ZKren 87. artikulua aplikatzeko garaian? Nola konpon daitezke?*

Artikulu hori aplikatzeko legezko aukera izan arren, praktikan, aplikatzeko zenbait eragozpen izaten dira, bereziki, hiru eremutan: Zigor Kodearen artikuluan bertan, artikulua aplikatzen zaien pertsonengan, eta, azkenik, esku hartzen duten profesionalen arteko desadostasunak, bereziki, eremu judizialeko eta eremu terapeutikoko profesionalen artekoak.

a) ZKren 87. artikulua beraren mugak:

Lehen ere aipatu dugu gai hori. Bost urteko muga dela-eta, aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira artikulua horretako betekizun guztiak (zigorrak denbora-muga gainditzea izan ezik) betetzen dituzten pertsonen sektore bat.

b) ZKren 87. artikulua aplikatzen zaien pertsonak:

Hasieran, artikulua aplikatzea eskatzen duten pertsonen sektore bat ez dago motibatuta prozesu terapeutikoari ekiteko. Interes nagusia espetxean ez sartzea da, eta alderdi terapeutikoari dagokionez, ez dute bestelako aldaketak nahi. Eta are gehiago; pertsona horietako batzuek terapiako langileei egozten diete balizko espetxeratzearen erantzukizuna, hartutako konpromi-

soen berri eman eta betebeharrak betetzen ez dituztelako epaitegira jakinarazten denean.

2. *psikologoa*: Neurri alternatibo bat betetzen ari direnean ere, adikzio-arazoak edo osasun mentaleko bestelako arazoak dituztenek zigortuta daudela pentsatzen jarraitzen dute, zigorra betetzen ari direla. Ez dute onartzen osasun-arloko kontua denik, eta horixe da arazoa. Zigortzat hartzen badute, behartuta daudela pentsatuko dute, eta osasunaren eremuan norbait behartuta baldin badago, konponbide zaila du horrek. Denborarekin egoera hori alda daiteke, baina zu hemen behartuta zaudela pentsatzen duzun bitartean ez duzu aukera hau baliatuko, zuri gertatzen zaizuna konpontzeko asmo zuzenik ez duzu, ez duzu arazoa onartzen.

Zenbait kasutan, eremu sozio-sanitarioko profesionalak agresibitatea aipatzen dute, ZKren 87. artikularekin lotuta. Portaera agresibo jakin batzuk –ahozkoak nahiz armekin egindako mehatxuak– terapia-lana hertsu dezakete.

ZKren 87. artikulua aplikatuko zaion pertsona atzerritarra baldin bada, eragozpen gehiago izan ditzake (hizkuntzarenak alde batera utzita), zeren legearen arabera, herrialdetik kanporatzera ere iritsi baitaiteke. Espainian legez kanpo bizi diren atzerritarren kasuan, ZKren 89. artikuluari jarraiki, ezin zaizkie aplikatu ZKren 87., 80. eta 88. artikulua.

c) *Esku hartzen duten profesionalen arteko desadostasunak*:

Askotariko desadostasunak izaten dira: eskura dagoen informazio guztia erabiltzeko premia (auzitegiko medikuen txostenak eskatzea pertsona jakin baten droga-mendekotasuna egiaztatzeko) zigorraren balizko etetea egiaztatzeko, hainbat diziplinaren artean koordinatzeko gabeziak, eta, nola ez, profesionalen trebezia:

1. Batzuetan, substantzien mendekotasunaren eta egindako delituaren arteko kausalitatea ezartzeko garaian eragozpenak izan dira. Horregatik, eskura dagoen informazio guztia (auzitegiko medikuen txostenak, historia klinikoak...) erabiltzea komeni da, etetearen aplikazioa errazte aldera. Operadore juridikoen eta osasun-arloko operadoreen aldetik, kexu dira ofiziozko zenbait abokaturen arduragabekeria dela-eta, haien defendatuen droga-mendekotasunari buruzko txostenak eskatzeari dagokionez.
2. Espetxean daudenen kasuan, ZKren 87. artikulua ez aplikatzeko joera. Elkarrizketatutako abokatuetakoa bat kezkatuta zegoen epaile jakin bartzuen joera bat dela-eta; izan ere, hainbat epailek artikulua hori ez aplikatzeko joera izaten dute, eskatutako betekizunak beteta ere, pertsona hori

espetxean dagoelako, eta nahiz eta Espetxe Erregelamenduaren 182. artikulua bidez tratamenduan hasteko aukera duten.

1. *abokatua*: Hauxe da gaiaren korapiloa, [...] ZKren 87. artikulua ukatzea beste arrazoiengatik espetxean dagoelako. Pertsona bat preso baldin badago edo preso dagoela jasota baldin badago, 87. artikuluko etetea ukatu egiten zaio pertsona hori beste kondena batzuk betetzen ari delako, eta orduan, espetxe-erregelamenduan droga-mendekoei tratamendua emateko bestelako aukerak eskaintzen zaizkio. Kasu askotan, betearazpen-agindua eman duen Epaitegiak ez du jakiten pertsona hori espetxean dagoen ala ez, zeren gerta daiteke kasu horretan inoiz espetxean ez sartzeari, edo gertakariak ez izatea espetxean sartzeko modukoak. Baina hala ere, ukatu egiten zaio. Eska ezazu Espetxe Erregelamenduaren (EE) 182. artikulua aplikatzea. Zer gertatzen da? Lehenik, legean xedatu ez den betekizun bat bete behar dela: espetxean ez egotea edo beste kondena batzuk betetzen ez egotea; eta, bigarrenik, efektu kaltegarria eragiten du; izan ere, epaiketaren bizkortasunaren arabera, etetea eman diezazukete edo ez, eta ez auto horietan bildutako inguruabarrengatik, baizik eta bai edo bai kontuan hartzen diren beste inguruabar batzuegatik. Sorgin-gurpila da, nire ustez: kasu honetan etetea aplikatzeko eskubidea badut betekizunak betetzen ditudalako, hau da, delitua egin dut droga-mendekotasuna dudalako, tratamendu-zentro batekin lotura dut eta zigorra gehienez 5 urtekoa da. Etetea ukatzen badidazu espetxean nagoelako, eta espetxeko kausara igortzen banauzu, are zailagoa izango da EEren 182. artikulua aplikatzea, artikulua hori aplikatzeko aldagaietako bat kondenaren denbora delako, eta kondena hau agindu eta eteten ez badidazu, nire kondena-denbora areagotzen ari zara; beraz, tratamendua jasotzeko aukeratik gero eta urrunago egongo naiz.

ZKren 87. artikulua aplikatzearen onura izan dezaketen pertsona asko droga-mendekoak dira, kausa txiki ugari dituzten droga-mendekoak, alegia, eta kondena-etetea eta espetxe-zigorrak nahasten dira. Fenomenoari erantzun globala emateko premia dagoenez, erabaki judiziala kasu bakoitzeko inguruabarren arabera hartu behar da, bestela, «nolabait, berdintasun-printzipioa urratzeko» arriskua dago. Operadore juridiko horrek epaileei ikusarazi nahi die droga-mendeko baten prozesu terapeutikorako zein garrantzitsua izan daitekeen espetxean edo espetxetik kanpo egotea.

3. Sistema judizialaren eta terapeutikoaren arteko desadostasunak:

Elkarrizketatutako psikologo batek honela laburbildu zizkigun sortzen diren desberdintasun eta tentsioak. Esku hartzen duten erakunde guztien helburuak eta premiak ez datoz beti bat, eta hor sortzen dira desadostasunak:

2. *psikologoa*: Gure lana ohitura berregokitzea da, nolabait esatearren. Orduan, sistema judizialak beste helburu batzuk edo beste zentzu bat du eta zigorra hortxe dago, hau da, delitua eginez gero, zigortu egin behar da. [...] Neurri alternatibo bat betetzen ari direnean ere, adikzio-arazoak edo osasun mentaleko bestelako arazoak dituztenek zigortuta daudela pentsatzen jarraitzen dute, zigorra betetzen ari direla. Ez dute onartzen osasun-arloko kontua denik, eta horixe da arazoa. Zigortzat hartzen badute, behartuta daudela pentsatuko dute, eta osasunaren eremuan norbait behartuta baldin badago, konponbide zaila du horrek. Denborarekin egoera hori alda daiteke, baina zu hemen behartuta zaudela pentsatzen duzun bitartean ez duzu aukera hau baliatuko, zuri gertatzen zaizuna konpontzeko asmo zuzenik ez duzu, ez duzu arazoa onartzen. Arazoa hau da: guk helburu jakin batzuk ditugula, eta sistema judizialak beste batzuk. Sistema judizialak, espetxearentzako neurri alternatiboekin esker, espetxera ez joateko aukera ematen dio pertsona bati, akats bat, huts-egite bat egin duenari; izan ere, espetxera joatea tamalgarria da pertsona horren ikuspegitik begiratuta, zeren bizitza eta beste gauza asko aldatuko baitzaizkio. Neurri mota horiek aukera bat ematen dute eta, zalan-tzarik gabe, hori oso positiboa da. Baina eremu judizialek beste zentzu bat eman beharko litzaioke: zigortzat baino gehiago, subjektuaren erantzukizun-tzat har dadin, egin duen huts-egitea konpontzeko. Bestela esateko, delitua egitean izan duten erantzukizuna erakutsi behar zaie delitugileei, eta erantzukizun hori nola konpentsatu edo, besterik ez bada, agerian nola ez geratu. Nire ustez, kondena ezartzea zigorra ezartzea da. Eta, azkenean, ikuspegi horrek hondatzen gaitu.

Sektore batek beste sektorean esku-sartzeko ahalegina egiten duenean ere areagotu egiten dira tentsioak, osasun-arloko profesionalak eremu judizialek pairatzen dituzten mesfidantzak direla-eta.

2. *psikiatra*: Pertsona jakin batentzat terapeutikoki zer den ona eta zer den txarra erabakitzeke garaian, iritziak ez dira bat etorri, baina guk terapeutikoki ona zer den esateko, pertsona horrek gaixoa izan behar du, eta ez zigortu ordeztua. Hori hasteko. Baina gaixoa baldin bada, arrazonamendu terapeutikoa asistentzia-ekipoen araberakoa izango da, ez asistentziakoa ez den ekipoak egindakoa.

2. *psikologoa*: Beste desadostasun bat, hain justu, erreklamazio hori da: «Zuk horren berri eman behar duzu». Noski, jakinaraziko dut, baina pentsa ezazu zeuk nola dagoen sistema txostena eskatzeko garaian eta txostenak presaka eskatzen dizkidazula. Batzuetan, gauzak gaizki ateratzen badira, zure errua dela ere esan izan dute. Kontuz! Bakoitzak bere erantzukizun eta zereginak ditu. Hobeto edo okerrago egitea, hori bakoitzaren baitan dago. Baina intrusismo apur bat ere badago, zentzuzkoa gainditzen duten eskaerak.

Eta jende askok ez du hori gustuko. Zenbait kidek ez dute inoiz kasu judizial bat hartzen, hain justu ez dutelako nahi aurrez aurre jarri behar izatea. Egin dezakete beste kide batzuek uzten dietelako.

[...] Jakinaraztera zoazenean, askotan, zera sentitzen duzu, alde publikoak, defentsa publikoak, fiskaltzak edo epaileak zure ekarpenari ez diola garrantzirik ematen. Pertsona bati arazo jakin bat konpontzen laguntzeko asmoz joaten zara horra. Zer dagoen esan nahi diezu. Baina informazio hori balekoa den edo ez den, hori beste kontu bat da. Baina gutxienez errespetuegoeran, zuk esan beharrekoa entzun eta galderak behar bezala egitea nahiko zenuke, zeren, askotan, diagnostikoak egiteko eta tratamenduak hasteko zure gaitasuna ere zalantzan jartzen baitute. Eta horrek min ematen du; gizarte-arloko kontua da, gizarte-presioarekin lotutakoa. Eta orain aipatuko dudan erakundearen kontra ez dut ezer txarrik esan nahi. Adibidez, Gizakia Helburu proiektua eremu judizialaren gertuko erakundea da. Gizakia Helburun sartzeari ongi ikusia dago epaileen artean, eta haiek erabaki behar dute. Aldiz, beste zerbitzu batzuk zalantzan jartzen dituzte, lana ongi betetzeko gai izango ez balira bezala. Eta hori, finean, errespetu-falta ere bada. Tokikomania-zerbitzuak eskaintzen dituzten zentro guztiak, sarea osatzen dutenak, sareari kontzertu bidez atxikita gaudenak, edo kontzerturik gabe ere, ebidentzian eta jardunbide egokietan oinarrituta lanean ari direnak, guztiak ere sinesgarritasun-maila berdina dute. Eta agian zerbitzu jakin bat ez da egokia adikzio-arazoak dituen norbaitentzat, baina beste zerbitzu bat bai. Adikzio-arazoak ez dira inoiz lehen saiakeran konpontzen. Baina arazo mota hauetan, berreritzea gertatzen da eta zerbitzu batetik bestera lekualdatzea eragiten du. Ibilbide horrek guztiak garrantzia du, nahiz eta hasierako helburuak ez bete, eta horri guztiari esker, agian, pertsona jakin batek une jakin batean erabaki dezake egoera horrekin amaitu nahi duela. Sinesgarritasunik edo konfiantzarik ezaren sentsazio horrek mindu egiten zaitu. Eta ez da epaileen artean soilik gertatzen, baizik eta baita zerbitzuen barruan ere. Eremu judizialean ez ezik, eremu sozio-sanitarioan ere gertatzen da tratamendu-zentro batzuekin harreman hobea izatea beste batzuekin baino, edo gizarte-zerbitzuen kasuan, edo egonkortze-neurrien kasuan. Sentsazio hori izatea oso arrunta da, sistema judizialaren eta sanitarioaren arteko harreman soilaz haratago. Baina zure lana zalantzan jartzen dutela iruditzen zaizu. Eta gero, zenbaitetan, gauzak gaizki ateratzen direnean errua zuri leporatu edo erantzukizunak zuri eskatzen dizkizute. «Izan ere, ezin dituzue kontrolatu, ez dakizue haiek kontrolatzen». Hau osasun-zentroa da, ez espetxea.

Gizarte-langilea: Aplikazioaren eragozpenetako bat hauxe izaten da: epaileak kondena etetea tratamendu-zentroaren esku uzten duenean tratamendua amaitzeagatik; alegia, gaixoak, kasu askotan, alta emateko eskatuko du edo eska dezake, sei hilabeteren edo urtebeteren buruan. Ongi daudela

esaten dizute, eta alta nahi dutela. [...] Terapeutaren eta gaixoaren arteko zailtasuna da hori.

1. *psikiatra*: Artikulu hori martxan jartzea onartzen denean ez zaigu zailtasun handirik sortzen, aipatu berri dugun hori ez bada; izan ere, kondena eteteko erabakia medikuaren altaren arabera izatea anbigua izan baitaiteke. Hori beldurgarria da, nire ustez.

4. Koordinazioa:

ZKren 87. artikulua behar bezala aplikatu ahal izateko, askotariko erakundeen eta askotariko profesionalen artean koordinazioa behar da. Lan-erritmo desberdinak jardun-irizpide desberdinetara loturik egoteak erabilgarritasuna mugatzen du. Behin baino gehiagotan gertatu izan da erakundeetan lanean ari diren pertsonen jarrerak hurbiltzeko ahaleginak egitea, baina emaitzak ez dira beti berdinak izan. Prozesu horretan, oso garrantzitsua da koordinatu behar dutenen artean enpatia egotea.

2. *psikiatra*: Egindako ahaleginak eginda, harremanetarako mekanismoa eta bakoitzaren eginkizuna ez dira izan behar luketen bezalakoak, eta, gehienetan, une horretan dauden pertsonen arabera izaten dira (guri ere gertatzen zaigu); jendearen arabera, batzuetan gauzak ongi ateratzen dira eta beste batzuetan gaizki. Nire ustez, egindako ahaleginak ahalegin, hori arazoa da, baita guretzat ere, ez baitiogu irtenbiderik topatu.

Testuinguru horretan, elkarrizketatutako agenteek onartzen dute gakoetako bat haxe dela, ZKren 87. artikulua aplikatzeko garaian epaileak hartzen duen jarrera.

2. *abokatu*: Baina, batez ere, une horretan dagoen epailearen ideologia bera ere arazo izan daiteke. Horixe da arazo nagusia. Epaile irekia baldin bada eta horrelako neurrien aldekoa bada, ia-ia modu mekanikoan lan egin daiteke. Badakizu epailearen baimena izango duzula. Orduan, lasaiago lan egiten duzu, presoarekin lan handiagoa egiten duzu, badakizulako eskaera ia-ia ziur onartuko dizutela. Aldiz, epaile itxia bada ez da hain erraza; denbora gehiago igarotzen duzu judizialki eta juridikoki irteera lortzeko borrokan, erabiltzailearekin kezkatuta baino; errekursoak, epailearekin elkarrizketak, eta abar. Eta askotan, ezer ez lortzeko. Orduan, bereziki, epailearen ezauzgarrien arabera izaten da, epailearen ikuspegiaren eta pentsamoldearen arabera.

2. *psikologoa*: Egia da, halaber, sistema judizialean epaile askok egoera hori modu konprometituagoan bizi dutela, egiaz, edo beste ikuspegi batetik begiratzen diotela, eta zuk egoera bat proposatzen diezunean, entzun egiten dizute eta alternatibak eskaintzen dizkizute, hau da, zer egin daiteke? Eta

zuk proposatzen duzuna ongi hartzen dute. Baina badira beste batzuk, dena delakoagatik, prestakuntzagatik, lan-bolumenagatik eta abarregatik, askoz zorrotzago jokatzeko dutenak eta ez dizute inolako aukerarik uzten.

ZKren 87. artikulua aplikatzeko garaian izaten diren zailtasunak bat datoz, funtsean, Spanish National Report (EMCDDA 2004:52) dokumentuan jasotako eragozpen garrantzitsuenekin, droga-mendekoei espetxearen-tzako neurri alternatiboak ezartzeari dagokionez:

- «Legedi penala: [...] azken urteotan, hainbat lege-aldaketa izan dira eta neurri horien aplikazio-eremua zabaldu da. [...] Azken erreforman, 5 urtera bitarte zabaldu da. Horri esker, alternatiba hori jende gehiagori aplikatuko zaio, droga-mendekoaren profil kriminologikoarekin bat gehi-ago datorrela kontuan izanik.
- Operadore juridikoen eta profesional sozio-sanitarioen artean koordina-zio handiagoaren premia.
- Epaileri zuzendutako droga-mendekotasunei buruzko informazioa eta prestakuntza hobetzeko premia.
- Jarraipena egiten duten zerbitzuen eta terapia betearazten duten zerbi-tzuen artean koordinazio handiagoaren premia.
- Epaileri laguntzeko zerbitzuen garapen handiagoa.»

Aipatutako zailtasun gehienak gainditzeko, harremanetarako egitura egonko-rran bat sortu beharko litzateke, prozesuan parte hartzen duten gizarte-eragileak eta erabakiak hartzen dituztenak harremanetan egon daitezten. Era berean, espetxe-arloko eskumenak EAera eskualdatzea oso lagungarri izan daiteke egungo egoera nabarmen hobetzeko.

Eremu sozio-sanitarioko profesionalen artean oso zabaldua dago kritika bat; hain zuzen ere, abokatuen, eta, bereziki, ofiziozko txandako abokatuen lanarekin loturik dago kritika hori, ofiziozko txandako abokatuen sektore esanguratsu batek ez baitie behar adina arreta ematen bezeroei. Gai hori beste hainbat ikerketatan ere aipatu da. UNAD (2006:43) erakundeak espetxean dauden droga-mende-koen egoera aztertu zuen; azterlanaren arabera, aztertutakoen %70ek ofiziozko abokatuak zituzten, eta %62 ez zegoen gustura abokatuak emandako zerbi-tzuekin. Horregatik, datu horiek «Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Orokorrari jakinaraztearen» aldekoa da, zeren «argi eta garbi adierazten baitute abokatuen zerbitzuak hobetu behar direla eta Espainian preso daudenek asistentzia juridiko egokia izatea bermatu behar dela».

Askotan, droga-mendekoekin aritzen diren GKEek egiten dute ofiziozko txandako abokatuek egin beharko luketen lana. ZKren 87. artikuluari atxikitako pertsonen ezaugarrietako bat izaten da kausa bat baino gehiago dituztela, eta, baliabiderik ez badute, kausa bakoitzerako abokatu bat izaten dute. Hori dela-eta, multzo-ikuspegia galtzen da eta ondorio negatiboak izan ditzake droga-mendekoarentzat. Zailtasun hori gainditzearren, koordinazio-sistema bat antolatzearren komeni da, pertsona beraren kausak metatzearen.

9. Terapiaren eta gizarteratzearen ikuspegitik begiratuta, zenbateraino da garrantzitsua zigor-betearazpenaren etete berezia aplikatzea droga-mendekoentzat? Eta faktore kriminogenoa neutralizatzeke?

Elkarrizketatuen iritzien arabera, droga-mendekoentzako zigor-betearazpenaren etete bereziak garrantzi handia du ikuspegi terapeutikotik begiratuta eta gizarteratzeari dagokionez, baita faktore kriminogenoa neutralizatzeke ere. Ez da komeni orokortzea, baina espetxean ez sartzea eta bizimodua berreraikitzeke aukera bat –hau da, eusteko guneak– izatea ezinbestekoak dira ohiturak aldatzeke. Dena den, psikiatra batek dioenez, zalantza handiak ditu artikulua horrek kontsumitzaile kopuru jakin baten gain duen garrantziari buruz, faktore kriminogenoa neutralizatzekeari dagokionez; izan ere, eteteaz balia baitaitezke beren mesederako.

1. abokatu: Nire ustez, espetxean sartzea saihestea gakoa da. Espetxegiroarekin lotura izatea tratamenduarekin kontraesanean dagoelakoan nago, eta ez soilik espetxean droga dagoelako, baizik eta baita espetxean egiten diren harremanengatik ere, espetxeko giroarengatik, eta espetxean bizitzeko eta egiteko moduengatik.

1. psikologoa: (Eteteak) badirudi funtzio berrezitzailea duela, gizarateak ere beste aukera bat ematen diola subjektuari; kontua ez da zigortzea, baizik eta pertsona bera, besteri egindako kalteak edo subjektuaren prozesuarekin loturik dagoen oro kontuan hartzeke, birbalioesteko aukera izatea. Alderdi horretatik eraginkorra da. Agian ez du konponduko droga-mendekotasunaren arazoa, baina pentsatzeko eta hausnartzeko balio dezake; haien jokabideak kolokan jarri duena berriz definitzeko. Neuk ikusi dut hori, helburu hori bete da.

Gizarte-langilea: Garrantzia badu, faktore positibo oso garrantzitsua da; substantzietara jo behar ez duenez, euspen gisa garrantzitsua da. Guk, praktikan, argi eta garbi ikusten dugu kondena oso gutxitan ezeztatzen dela, delituak egiteagatik kondena, alegia.

2. *psikiatra*: Gizarteratzearen ikuspegitik begiratuta, nire ustez oso garrantzitsua da. Izan ere, gaixo asko gizarteratu dira eta gaur egun bizimodu normala dute. Horregatik bada ere, sistemak merezi du. Ikuspegi kriminogenotik begiratu-ta, aldiz, ez daukat hain argi, zeren, nire ustez, kriminogenoenak baitira horrelako funtzionamenduei gutxien atxikitzen zaizkienak. Horiek ustiatzen dute gehien sistema beren mesederako, aldatzeko eta gizarteratzeko inolako asmorik gabe; haientzat ziurrenik negatiboa den ingurunean bizirautea dute xede, ez besterik.

10. *Etetealdia igaro eta pertsona oraindik ere mendekotasun-egoeran badago, Zigor Kodean aurreikusten denez, epaileak zigorra betetzea aginduko du edo, txostenei kasu eginda, etetealdia gehienez ere bi urtez luzatu; zure ustez, aurreko horietaz gain, ba al dago bestelako konponbiderik? Eta pertsona hori «arriskutsua» baldin bada?*

Praktikan, etete mota horren epea luzatzea ez da oso ohiko izaten, baina zenbait kasutan egin izan da. Kasu gehienetan, etetealdia amaitu baino lehen bukatzen da tratamendua, zeren, oro har, tratamenduak ez baitira izaten bi urte baino luzeagoak. Horrelako kasuetan, bilakaera positiboa baldin badago, epaileari horren berri ematen zaio eta jarraipen lasaia egiten da ekipo terapeutikoaren aldetik edo EBI institutuaren gizarte-zerbitzuetatik.

ZKren 87. artikulua aplikatu zaion pertsona bat oraindik ere *arriskutsutzat* hartzen bada, tratamenduarekin jarraitzea proposatzen da, askatasunaz gabetzen ez duten segurtasun-neurriak aplikatzea, eta baita ez esku-sartzea ere, bere zigorra bete baitu.

1. *abokatua*: [...] arriskutsutasunaren kontua dela-eta, askatasunaz gabetzen ez duten segurtasun-neurrien aldekoa naiz ni, aurreikusita dauden eta aplikatu daitezkeen neurrien aldekoa; nahiz eta, azkenean, epeak ere ez diren askoz luzeagoak, beti egongo da norbait gure ustez jarraipena behar lukeena, baina arriskuarekin loturiko euspenagatik baino gehiago, askotan ez direlako gai beren kasa funtzionatzeko, jarraipen lasaia eginda, zertxobait kontrolatuta; berehala galdu egiten dira, nolabait esatearren.

2. *psikologoa*: Legeak horixe dio. Beste kontu bat da zigorra bete ostean, epaileak lekualdatzea, baina nire iritziz, esku-sartzea izango litzateke, epaileak pertsona horren bizitzan eskua sartzea, alegia. Pertsona horrek zigorra bete badu, «garbi» geratu beharko luke. Epaileak, prebentzio-neurri moduan, egonaldia luzatzea kalte berriak saihesteko, kautelazko neurritzat, agian justifikatuta egongo da, baina nire ustez, esku-sartzea da, zalantzarik gabe. Pertsona hori arriskutsua baldin bada agian uler nezake, baina eguneroko jardunean ikusten

ari garen moduko pertsona arrunta baldin bada, botere-abusua iruditzen zait. Zigorra betez gero, norbera libre da nahi duena egiteko, betiere bizikidetzaren errespetatuta. Nik kontsumitu edo ez kontsumitu, niri dagokit, ez besteri. Zigor hori bete badut, abstinentzian egotera behartzen baninduten eta egon banaiz, gero zer egiten dudan nire kontua da. Kautelazko neurriak beste kontu bat dira, baina gatozen atzera profiletara; jakin egin behar da nori eska dakiokkeen eta nori ez.

11. Genero-ikuspegitik begiratuta, ba al dago berezitasun garrantzitsurik?

ZKren 87. artikulua aplikazioari buruzko datuei erreparatuta, baliabide horri atxikitako gehien-gehienak gizonezkoak dira. Baina, elkarrizketatuen ustez, emakumei ere bereizgabe aplikatzen zaie lege-betekizunak betez gero. Elkarrizketa egindako psikiatra baten arabera, bada alde bat: agresibitatea:

2. *psikiatra*: Ikuspegi garrantzitsua agresibitatearena da. Eta agresibitatea maskulinoa da, hormona-kontua dela-eta. Eta, esan gabe doa, emakumeen eremuan bestelakoa da. Gizonek eragiten dituzte arazo larriak, hori aurrena. [...] Nire iritziz, ez dago bestelako alderik agresibitateaz gain.

ZKren 87. artikulua gizonei nahiz emakumei aplikatzen zaien arren, emakumeen kasuan badira kontuan hartzeko moduko berezitasunak: emakumeen aurkako indarkeria eta baliabide-ekasak. Emakume droga-mendekoen sektore bat (delituekin loturiko arazoak dituztenak, alegia) deserrotze-egoeran bizi da, eta horrek are ahulago bihurtzen ditu bizimodua normalizatzeko prozesuari begira.

1. Emakumeen aurkako indarkeria:

3. *psikologoa*: Tratu txarren gaia ere kontuan hartzeko modukoa da, ez soilik familia-indarkeria. Tratu txarrak haurtzaroan eta gaztaroan; horrek guztiak arazo gehiago eragiten dizkie, eta gizonezkoek ez zaie horrelakorik gertatzen.

2. Baliabide gutxiago eskura:

2. *abokatu*: [...] emakumea erabat eskas dago baliabideei dagokienez. Alegia, Legeak ez du aintzat hartzen, une honetan, emakume delitugile edo toxikomanoaren problematika guztia. Familiak erantzuten ez badu, ez dago harrera-plazarik tratamendua jarraitzeko, plaza-ekasak izugarria dago, eta ez da kontuan izaten gainera ama ere izan daitezkeela, seme-alabak zaindu behar dituztela, edo gizarte-zerbitzuak behar izatea eta uztartu egin behar izatea.

2. *psikologoa*: Toxikomaniei dagokienez, egoerak oso antzekoak dira emakumeen eta gizoneen artean, hau da, sexuaren arabera alde handirik ez dago, eta

ez dituzu ezberdin tratatu behar, nire ustez, behintzat. Baina badira genero-ikuspegiarekin, edo horrekin baino gehiago, generoari atxikitako erantzukizunak hartzearekin loturiko zenbait gai; hala nola, seme-alabak hazi eta heztea. Eta horretan, noski, emakumeak bere gain hartzen du erantzukizun guztia. Baina espetxera joan behar badu, zer gertatuko da seme-alabekin? Nire ustez hortxe egin behar genuke bereizketa, baina ez emakumearengatik, seme-alabengatik baizik. Ahulenaren egoeragatik, babesik gabe geratzen denarengatik.

12. *Besterik esan nahiko zenuke?*

Era berean, elkarrizketa sakonak erantzun dituztenek hausnarketa asko eta interesgarriak egin dizkigute beren esperientzia handian oinarrituta; hona hemen hausnarketa horiek:

- ZKren 87. artikuluan aurreikusitako etete berezia emateko prozesuan burokrazia gehiegizkoa da, bereziki, pertsona hori espetxean baldin badago.
- Etete berezia ez litzateke ukatu behar eskatzailea espetxean egote hutsagatik, indarreko legedian eskatutako betekizun guztiak betetzen badira.
- Osasun-arloko profesionalen sektore baten hitzetan, beren lana ez dute aintzatesten eta ZKren 87. artikulua aplikatzeko ezinbestekoak diren baliabideek (komunitate terapeutikoa, baliabide ambulatorioak...) babes ekonomikorik eza izaten dute. Adibidez, pertsona bat espetxean izateak eragiten duen gastuak ez du inolako zerikusirik baliabide terapeutiko batean (bereziki, komunitate terapeutiko batean) sartzen den pertsona bakoitzeko ordaintzen den kopuruarekin.
- Prozesuan parte hartzen duten alde guztian artean gertutasun eta ezagutza-maila handiagoa behar da, bereziki, sistema sozio-sanitarioaren eta sistema judizialaren artean.



5. Zigor Kodearen 87. artikuluan aipatzen den droga-mendekoen- tzako espetxe-zigorra etetea aplikatzeari buruzko azterlan kuantitatiboa: Epaitegietako datuak


CÉSAR SAN JUAN, ISABEL GERMÁN,
LAURA VOZMEDIANO

5.1. LAGINAREN DESKRIBAPENA ETA PROZEDURA

Aztergai izan den lagina honako hauek osatzen dute: 2005. urtean EAEko epaitegietan epaituak izan, eta indarreko legediari jarraiki, 87. artikulua hori aplikatu zaien subjektuek; esan bezala, 87. artikulua askatasunaz gabetzeko zigorraren betearazpena eteteari buruzkoa da eta mendekotasuna gainditzeko tratamendu egitea eskatzen du. Lan honi dagokionez, aldi horretan egindako lege-haustek hartuko dira oinarritzko kausatzat, eta berrerortzearen analisisian 2006. urte osoa ere sartuko da. Berrerortze-azterlanetan gutxienez hiru urteko jarraipenaldia finkatzea komeni da, baina erreferentziako urtea hautatzeko garaian, azaroaren 25eko 15/2003 Lege Organikoaren bidez egindako erreforma izan dugu kontuan; lege horren bitartez, Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatu zen eta 2004ko urriaren 1ean hasi zen indarrean. Besteak beste, azterlan honen aztergai dugun 87. artikulua aldatu zuen. Erreforma horrekin, droga-mendekoen kasuan etetea malguago aplikatu daiteke, eta data horretatik aurrera, gehienez ere bost urteko zigorrak dituzten kondenatuen kasuan ere aplikatu daiteke; ordura arte, hiru urtera bitarteko zigorrak zituzten kondenatuei soilik aplikatu zitezkeen. Halaber, 87. artikulua berriaz betekizun bat desagertu da; hain zuzen ere, delituan ohikotasunik ez izateko betekizuna, eta horri esker, onura penal hori maizago aplikatzeko aukera dago data horretatik aurrera.

Aurreko guztia kontuan izanik, lagina honela osatu da: 145 gizon (%90,6) eta 11 emakume (%6,9). 4 pertsonaren sexua ez dago jasota (%2,5) (1. irudia). Lagina osatzen duten 160 pertsonetatik, kasu bakarrean ezeztatu zen etetea.

1. irudia. Sexua




Adina jasota duten subjektuen ehunetik, laginaren ia erdia 36 urtetik gorakoa da (%43,05). Nolanahi ere, ia subjektu guztiek 26 urte baino gehiago dituzte (%90,27).

1. taula. Adina

Adin Tarteak	Subjektu kopurua	Ehunekoa %	Ehuneko balioduna %
18-20	1	0,6	1,4
21-25	6	3,8	8,3
26-30	15	9,4	20,8
31-35	19	11,9	26,4
36tik gora	31	19,4	43,1
<i>Guztira, datu eskuragarriak</i>	72	45	100
Ez dago jasota	88	55	
GUZTIRA	160	100	

2. irudia. Laginaren banaketa, adin multzoen arabera




Aztertutako subjektuen balizko problematikari dagokionez, %81,9 toxikomania dira eta alkohola ez den substantziak hartzen dituzte; %4,3k soilik dute alkohol-adikzioa. Subjektuen %13,8k osasun mentarekin loturiko arazoren bat dute, toxikomaniaz gain.

2. taula. 87. artikulua aplikatu zitzaizen subjektuen problematika

Problematika	Kasu kopurua	Ehuneko %	Ehuneko balioduna %
Toxikomania soilik	77	48,1	81,9
Alkoholismoa soilik	4	2,5	4,3
Toxikomania eta osasun mentala	13	8,1	13,8
<i>Guztira, datu eskuragarriak</i>	94	58,8	100
Ez dago daturik	66	41,3	
GUZTIRA	160	100	

3. irudia. Loturiko arazoen banaketa



Egindako egitateengatik ezarritako zigor motari dagokionez, %86,69ri espetxe-zigorra ezarri zitzaien eta horietatik %58,62k urtebeteko edo hortik beherako espetxealdia bete behar zuten. Soilik %4,60k zuen 3-4 urteko espetxe-zigorra.

3. taula. Zigor motak

Zigorra	Kasu kopurua	Ehunekoak %
Espetxea bai	87	89,69
Espetxea ez	10	10,31
GUZTIRA	97	100

4. taula. Espetxe-zigorraren iraupena


Espetxe-zigorraren iraupena	Kasu kopurua	Ehunekoak %
≤ 1 urte	51	58,62
>1 urtetik ≤2 urtera	20	22,99
>2 urtetik ≤3 urtera	12	13,79
>3 urtetik ≤4 urtera	4	4,60
>4 urtetik ≤5 urtera	0	0
GUZTIRA	87	100

Espetxe-zigorrik ezarri ez zieten subjektu gehienak (%70) asteburuko atzipenaldia betetzera zigortu zituzten.

5. taula. Zigor motak, espetxe-zigorra izan gabe

Zigorra	Kasu kopurua	Ehuneko %
Isunak	1	10
Asteburuko atzipenaldiak	7	70
Erantzukizun penal subsidiarioa	2	20
GUZTIRA	10	100

4. irudia. Ezarritako espetxe-zigorrek: ehuneko iraupenaren arabera




5.2. EMAITZAK

Jarraian, emaitzak emango ditugu, eta prozedurari buruzko idatz-zatian aipatu dugunez, zigor-arloko epaitegietako datuetatik atera ditugu (Donostiako zigor-arloko 4 zenbakikoa, Bilboko zigor-arloko 7 zenbakikoa, Barakaldoko zigor-arloko 1 eta 2 zenbakikoak, eta Gasteizko zigor-arloko 1 eta 2 zenbakikoak). ZKren 87. artikuluaaren aplikazioari buruzko datuak, 2005. urtekoak.

Berrerortzeari dagokionez, ZKren 87. artikulua aplikatu zaien 160 pertsona horietatik 104k ez dute berriz delitu egin aztertutako aldian; %65 dira. Aldiz, %35ek (hau da, 56 pertsonak) egin du delituren bat aldi horretan (5. irudia).

5. irudia. Berrerortzea



Baina egia esan, berrerori diren 56 subjektu horietatik 27k soilik (%48) egin du beste delitu bat gerora; ikus 6. taula. 13 subjektuk 2 delitu egin dituzte (%23 dira). Hortaz, berrerorleen %71k delitu bakarra edo bi delitu soilik egin dituzte oinarritzko kausaren ondoren.

6. taula. Oinarritzko kausaren ondoren egindako delitu kopurua

	Maiztasuna	Ehunekoak
Ez berrerorleak	104	65,0
1	27	16,9
2	13	8,1
3	6	3,8
4	2	1,3
5	5	3,1
6	1	0,6
7	1	0,6
10	1	0,6
GUZTIRA	160	100,0

Halaber, χ^2 proba bat egin zen honako hauen artean loturarik bat ote dagoen egiaztatzeko: *loturiko problematikaren eta berrerortzearen nahiz ez-berrerortzearen artean*. Ez dugu ahaztu behar laginaren %41,3ren kasuan (66 subjektu) ez dugula datu horren berri; beraz, guztirakoaren %58,8rekin (94 subjektu) egin zen proba. χ^2 probaren emaitzari erreparatuta, ez dago loturarik bi aldagai horien artean [$\chi^2(2) = 0,376$; $p = 0,829$]. Talde baten tamaina dela-eta, χ^2 probaren kasuetako bat ez zen bete; horregatik, loturarik ez dagoela frogatzeko, Cramer-en V proba egin genuen eta emaitza bera ateratu zen.

Horretaz gain, loturiko problematikak oinarritzko kausaren ondoren egindako delituen batez bestekoan alderik eragiten ote duen egiaztatu zen. Eta espero zitekeen moduan, eta aurreko emaitzarekiko koherentziari eutsiz, ez zen estatistikoki alde esanguratsurik sumatu (HDS Tukey) taldeen artean. Deskriptiboai eta ANOVA probari buruzko xehetasunak 7. eta 8. tauletan bildu ditugu.

7. taula. Oinarritzko kausaren ondoren egindako delitu kopurua, problematikaren arabera: deskriptiboak


	Kop.	Batez bestekoa	Desbiderapen tipikoa	Errore tipikoa	Gutxienekoa	Gehienekoa
Toxikomania ez-alkoholikoa soilik	77	1,05	1,870	0,213	0	10
Alkoholismoa soilik	4	0,25	0,500	0,250	0	1
Toxikomania eta osasun mentala	13	0,62	0,961	0,266	0	3
GUZTIRA	94	0,96	1,741	0,180	0	10

8. taula. ANOVA: Oinarritzko kausaren ondoren egindako delitu kopurua, problematikaren arabera

	Karratuen batura	gl	Batez besteko koadratikoa	F	Sig.
Taldeen artean	4,211	2	2,105	0,690	0,504
Talde barruan	277,619	91	3,051		
GUZTIRA	281,830	93			

Egindako *delitu motari* dagokionez, Zigor Kodearen arabera sailkatuta, delituen %70 *jabetzaren aurkakoak* dira; gainerako %30a honela banatzen da: *personen aurkakoak* (%9,4), *osasun publikoaren aurkakoak* (%1,9) eta beste batzuk (%8,8), edo egindako delitua ez dago jasota (%10).

6. irudia. Oinarrizko Kausa definitzea



9. taulan, *delituen deskribapena* egin dugu, eta ikus daitekeenez, ZKren 87. artikulua aplikatu zaien subjektuek egindako delituen erdia, hain justu, *lapurretak* edo *gauzetan indarra erabiliz egindako lapurretak* dira.

9. taula. Delituaren deskribapena

	Maiztasuna	Ehunekoa
Atentatua	4	2,5
Osasun publikoaren aurka	3	1,9
Trafiko-segurtasunaren aurkakoak	6	3,8
Maula edo faltsifikazioa	5	3,1
Ebasketa	4	2,5
Lesioak	4	2,5
Tratu txarrak	3	1,9
Ez dago jasota	17	10,6
Beste batzuk	3	1,9
Neurria urratzea	3	1,9
Lapurreta	33	20,6
Ondarearen aurkako lapurreta	3	1,9


.../...

.../...

	Maiztasuna	Ehunekoa
Lapurreta indarkeria erabiliz	47	29,4
Lapurreta larderia erabiliz	14	8,8
Lapurreta indarkeria erabiliz	11	6,9
GUZTIRA	160	100,0

Subjektuak *Lurralde Historikoko Epaitegiaren* arabera banatuz gero (ikus 7. irudia), %67,5i, hau da, 108 subjekturi Bilbon aplikatu zaie ZKren 87. artikulua eta 13 subjekturi (%8,1) Barakaldon. Aldiz, Donostian 29 subjekturi, guztirakoaren %18,1 izanik. Araban, ordea, 10 kasutan aplikatu da onura hori (guztirakoaren %6,3).

7. irudia. Oinarrizko Kausa epaitegia



Lurralde Historikoaren arabera, berrerortzearekin loturiko aldeak aztertzeke garaian, post-hoc probetan estatistikoki alde esanguratsuak (HSD Tukey) aurkitu ditugu Bilboko eta Donostiako epaitegien artean, betiere berrerortzeke aukerari dagokionez; 10. eta 11. tauletan ikus daiteke. Alegia, Bilbon epaitutako subjektuek Donostian epaitutakoek baino batez besteko handiagoa dute oinarrizko kausaren ondoren egindako delituei dagokienez.

10. taula. Oinarrizko kausaren ondoren egindako delitu kopurua: deskriptiboak

	Kop.	Batez bestekoa	Desbiderapen tipikoa	Errore tipikoa	Gutxienekoa	Gehienekoa
Bilbo	108	1,01	1,727	0,166	0	10
Barakaldo	13	0,69	1,377	0,382	0	5
Gasteiz	10	0,60	0,966	0,306	0	2
Donostia	29	0,10	0,409	0,076	0	2
GUZTIRA	160	0,79	1,534	0,121	0	10

11. taula. ANOVA Oinarrizko kausaren ondoren egindako delitu kopurua

	Karratuen batura	gl	Batez besteko koadratikoa	F	Sig.
Taldeen artean	19,344	3	6,448	2,835	0,040
Talde barruan	354,850	156	2,275		
GUZTIRA	374,194	159	–	–	–

Subjektuak *erreferentzia-zentroaren* arabera banatuz gero (12. taula), laginaren %10ek *Etorkintzan* burutu du tratamendua, eta %10,6k *Gizakia Helburun*; beraz, bi zentro horietan metatu da subjektuen ehuneko handiena ZKren 87. artikulua aplikatuz motaren bateko esku-hartze psikosoziala betetzeko.

12. taula. Erreferentzia-zentroak

	Maiztasuna	Ehunekoa
AGIPAD	3	1,9
Ajuriaguerra	7	4,4
As. Roma (Kantabria)	1	0,6
Asociación Betel	1	0,6
ATOX (Ourense)	1	0,6
Auzo-lan	7	4,4
Bitarte	3	1,9
C. Alcalá de los Gazules	1	0,6
C. Drog. Berriotoxa	1	0,6
C. Reto de Valencia	1	0,6

.../...

.../...

	Maiztasuna	Ehunekoa
C. Terap. De Foronda	1	0,6
C. Tox. Alava	1	0,6
C. Zutitu	1	0,6
C.S.M. Gros	1	0,6
C.S.M. Herribitarte y Forense	1	0,6
C.S.M. Zumarraga	1	0,6
C.T. JOMAD (Malaga)	1	0,6
C.T. Manu Ene	3	1,9
Espetxea	1	0,6
Clinica Indautxu	1	0,6
CSM	2	1,3
CSM Arrasate	1	0,6
CSM Rentería	1	0,6
Iñaki Eguiluz dok.	1	0,6
Eq. Int. Tox. Basauri	2	1,3
Etorkintza	16	10,0
Gizakia	2	1,3
Horizontes Abiertos	1	0,6
Izangai	2	1,3
Lagun Artean	6	3,8
Lur Gizen	4	2,5
Mod. Deusto-San Ignacio	4	2,5
Mod. Rekalde	7	4,4
Ez dago jasota	22	13,8
Nanclares	3	1,9
Novia Salcedo	3	1,9
OASIS (Iruñea)	1	0,6
Gizakia Helburu	17	10,6
S.M. Barakaldo	9	5,6
S.M. Basauri	3	1,9
S.M. Bermeo	1	0,6

.../...

.../...

	Maiztasuna	Ehunekoa
S.M. Eibar	2	1,3
S.M. Herribitate	1	0,6
S.M. Otxarkoaga	6	3,8
S.M. Santurtzi	1	0,6
S.M. Uribe-Kosta	4	2,5
GUZTIRA	160	100,0


8. irudiko piramidean, oinarrizko kausaz geroztik izandako *berrerortzearen bilakaera* agertzen da, eta ikus dezakegunez, berrerori ez diren 104 subjektuetatik (piramidearen oinarrian) 62k *jabetzaren aurkako* delituak (CLPD) egin dituzte, 14 delitu *pertsonen aurkakoak* izan dira (CLPS) eta 3 *osasun publikoaren aurka*.

Oinarrizko kausaren ondoren delitu bakarra egin dute berrerorleak guztira 27 pertsona dira. Horietatik 23ren kasuan, lehen delitua (oinarrizko kausa) jabetzaren aurkakoak izan zen eta hori bat dator bigarren aldiz egindako delitu motarekin.

Oinarrizko kausaren ondoren bi delitu egin dituzten berrerorleen (13 subjektu) kasuan, 11, *jabetzaren aurkako* delituak egin zituzten. Eta ia kasu guztietan, delitu mota bera egiten dute berriz ere.

Ildo beretik, oinarrizko kausaren ondoren bi delitu baino gehiago egin dituzten subjektuen joera ere antzekoa da, *jabetzaren aurkako* delituak errepikatzen baitituzte. Esate baterako, 2005ean oinarrizko kausatzat erregistratutakoaz gain, 2006. urtean hiru delitu egin dituzten 6 subjektuek *jabetzaren aurka* jardun dute beti; subjektu bat salbuespena da, hirugarren delitua bestelakoa izan baitzen.

8. irudia. Oinarrizko kausaz geroztik izandako berrerortzearen bilakaera



5.3. EZTABAIDA

Aipatzeko moduko lehen datua sexuen arteko *ratioarekin* loturik dago; izan ere, aztergai dugun laginaren %7 soilik da emakumea eta gizonek %91 osatzen dute. Nolanahi ere, 2006. urtean Estatu osoan kondenatutakoen arteko ehunekoen proportzioa berdina da, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuen arabera. Beraz, emaitza hori ez da deigarria, izan ere, eta izatekotan, estatistika kriminologiko guztietan argi agertzen da gizonak gainordezkatuta daudela delitugileen artean.

Kondenatuak sexuaren arabera 2006. urtean

	Delitu kop.
Gizonak	127.099
Emakumeak	11.288
GUZTIRA	138.387

Iturria: *Estatistikako Institutu Nazionala 2007.*

Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiaren zifrak ere ildo beretik doaz, espetxeratuak sexuaren arabera banatuz gero.

Espetxeratuak banaketa sexuaren arabera (2007ko urria)

	Espetxeratuak	Ehunekoa
Gizonak	61.253	91,68
Emakumeak	5.556	8,32
GUZTIRA	66.809	100

Horretaz gain, kontuan izan behar da delitugile-toxikomanoaz ari garenean, ebidentzia penalaren arabera, gizonek gehiago jotzen dutela delituak egitera emakumeek baino, droga ordaintzeko modua lortzearen; emakumeek, ordea, prostituziora joko lukete (Urbano, Arostegi; 2004: 166. Rekalde, Vilches; 2003: 12. Torre, Balboa, Ayesta; 2003).

Beraz, ondorio hau atera dezakegu: emakumei eta gizonei proportzio horretan aplikatu bazaie kondenaren etetea, gizonek egindako delitu kopuruagatik izan da, askoz ere handiagoa baita.

Errealitatean ikus daitekeenez, aztergai dugun biztanleria-sektorearengan narriadura-maila oso handia da, baita gizarte-bazterkeriarena ere, eta haien bizimodua ez da, inolaz ere, normalizatua. Hori horrela izanik, biztanleria horren kriminalitate-indizeak handiak izaten dira eta, kasu askotan, «delitu-ibilbidea» esaten zaionari ekiten diote (Marina, 1999: 238). Pertsona horien berrerortzearen zenbatekoak aztertzeke garaian ere kontuan izan behar dira gai horiek guztiak. Beraz, ez dirudi %35eko berrerortze-tasa oso handizat har dezakegunik, printzipioz behintzat. Nolanahi ere, balio erlatiboa duen datua da, eta, hein handi batean, 87. artikulua azken xedearen arabera interpreta daiteke; artikulua horren bidez, mendekotasuna gairatutako tratamendua behar dutenak

espetxean sartzea saihestu nahi da, mendekotasunaren eraginez egin baitituzte delituak eta delitu horiengatik kondenatu dituzte. Espetxeetako egoera ikusirik, hobe da tratamendua espetxetik kanpo egitea.

Ildo beretik, eta jarraipenaldia urtebete soilik izan dela aintzat hartuta –berrorleen %71k aldi horretan delitu bat edo bi egin dituzten arren–, Justizia Administrazioaren interesei mesede handirik egiten ez dien berrerortze-tasa ikusiko dugu.

Izan ere, Estatistikako Institutu Nazionalak emandako datuen arabera, 2006. urtean Estatu osoan kondenatutakoen %23 berrerortzea zen. Berrerortze-tasa hori %31 igotzen da ondarearen aurkako delituaren kasuetan, baina, tamalez, gure azterlaneko %35etik urrun oraindik.

Kondenatuak berrerortzearen (*) arabera 2006. urtean

	Kondenatuak	Ehunekoak
Berrerortleak	28.967	23
Ez-berrerortleak	96.418	77
GUZTIRA	125.385	100

Iturria: *Estatistikako Institutu Nazionala 2007.*

(*) Berrerortzea = alde zuzenetik kondenatua izatea.

Kondenatuak berrerortzearen (*) eta egindako delitu motaren arabera, 2006. urtean

	Ondarearen aurkako delituengatik kondenatuak	Ehunekoak
Berrerortleak	9.836	31
Ez-berrerortleak	21.766	69
GUZTIRA	31.602	100

Iturria: *Estatistikako Institutu Nazionala 2007.*

(*) Berrerortzea = alde zuzenetik kondenatua izatea.

Datu horiek gorabehera, Juan Muñoz eta Díez Ripollés autoreek epaiei buruz azterlana egin zuten drogek delinkuentzian duten eragina ikusteko, eta azterlan horren arabera, ondarearen aurkako delituak egiteagatik zigortutakoei dagokienez, berrerortze-tasa %40 ingurukoa da (Muñoz; Díez Ripollés, 2004: 227). Aldiz, Roca eta Caixal autoreek espetxeratuen artean egindako ikerketaren

arabera, berrerortze-tasa %31,93 da tratamenduan bilakaera positiboa dutenen artean, eta tratamendua bukatzen ez duten presoek kasuan, %54,83ra igotzen da (Roca eta Caixal: 2002). Baina zenbateko horien esanahia erlatibizatu egin behar da, tratamendua espetxean betetzen ari diren subjektuek eta 87. artikulua aplikatzen zaien subjektuek ez dituztelako ezaugarri berdinak; hortaz, profil desberdineko bi subjektu talde alderatzen ari gara.

Gure azterlanean, subjektuen problematikaren (toxikomania, alkoholismoa, osasun mentaleko arazoak) eta berrerortzearen arteko balizko lotura aztertu dugu eta konturatu gara drogekiko edo alkoholarekiko adikzioaren azpiko arazoaren ondorioz, subjektuen profila antzekoa dela.

Nolanahi ere, emaitza horiek kontu handiz interpretatu behar dira. Lehenik, subjektuen %40ren baino gehiagoren loturiko problematika ez dugu ezagutzen. Gainera, soilik alkoholismoarekin loturiko arazoak dituztenak oso gutxi dira, eta patologia dualeko taldea ez da askoz handiagoa. Interesgarria izango litzateke aldagaien arteko lotura aztertzea, datu gehiago izanez gero. Horretarako, al-dizkako osteko azterlanak egin beharko lirateke, datu metatuekin. Ildo beretik, gure ustez, baliabide gehiago behar dira datu-base operatiboaren diseinua egin eta datu-bilketa zehatzagoa lortzeko. Bestela, ez dugu lortuko neurri mota horien eraginkortasuna modu fidagarrian ebaluatzea.

Egindako delitu motari dagokionez, aurreko hori ere kontuan izan behar da. «Delinkuentzia funtzionala» esaten zaio horri, alegia, dosia finantzatzeko modua lortzearen egiten diren delituak. Zenbait droga legez kanpokoak izaki, oso garestiak dira eta drogazaleak gero eta baliabide gehiago behar izaten ditu. Egoera horretan, droga-mendekotasuna leherrarazlea da, aurreragoko delitu-portaera eragiten duena. Vargas (2005) autorearen esanetan, «substantzien abusua eta delituak egitea bi portaera dira, baina, kasu askotan, batera gertatzen dira eta elkarri elikatzen diote».

Gure azterlanean ikusi dugunez, egindako delitu gehienak (10. taulan ikusitakoaren arabera) jabetzaren aurkakoak dira, eta, oro har, droga erosteko helburu bakarra dute. Hainbat autorek (Rodríguez, Paíno, Herrero, González; 1997: 588) diotenez, «delitu-portaera esanguratsuak jabetzaren aurkakoak dira (indarra, indarkeria eta/edo larderia erabiliz), eta tarteka, faltsutze-delituak, bidegabeko eralgitzea...». Eta ez dugu ahaztu behar Zigor Kodearen 87. artikulua hain justu delinkuentzia funtzionaleko kasu horietara zuzenduta dagoela.

Halaber, berrerortzearen ondorearen aurkako delituak egiten dituzte, baina ez behin bakarrik, baizik eta oinarritzko kausaren ondoren delitu batzuk egiten dituzten subjektuen kasuan.

Etetearen aplikazioa lurraldeetako epaitegien arabera banatzeari dagokionez, kopuruei erreparatuta ikusi dugu ehuneko handiena Bizkaiari dagokiola, hain justu Bilbori (%67,5); segidan Donostia (%18,1) eta Barakaldo (%8,1) datoz, eta azkenik Gasteiz (%6,3). Horrek badu azalpen bat; izan ere, Bilbon biztanle gehiago pilatzen dira gainerako tokiekin alderatuta. Dena den, Bilbon epaitutako subjektuen artean berrerortzea handiagoa dela esan dezakegu, Donostiakoekin alderatuz gero, eta alde hori estatistikoki esanguratsua da.

Beraz, eta laburpen moduan, esan dezakegu ondarearen aurkako delituek eragin dutela kondena eta kondenaren ostean Zigor Kodearen 87. artikulua aplikatzea. Toxikomanoak behar d(it)uen droga(k) lortzeko delituak, legez kanpoko substantziak oso garestiak baitira, eta betiere, artikulua hori aplikatzeko nahitaez bete beharreko betekizun jakin bat ahaztu gabe, hain zuzen ere, kausa-efektu harremana, drogen mendekotasunari eta delitua egiteari dagokionez. Aztertutako subjektuen berrerortze-tasa pixka bat handiagoa da, Estatu osoan kondenatutako guztien kasuan estatistikek adierazten dutena baino. Emaitza hori ez da ona; hortaz, hurrengo urteetan sor daitezkeen datuen jarraipen zorrotzagoa egin beharko litzateke.

tx
i

o
n

s
f

t
o

e
r

n
m

a
e

6. Ondorioak

XABIER ARANA, ISABEL GERMÁN

- Konstituzioaren 25.2 artikulua arabera, askatasunaz gabetzen duten neurriak eta segurtasun-neurriak berriz heztera eta gizarteratzera bideratu behar dira. Testuinguru horretan, droga-mendekoentzako askatasunaz gabetzeko zigorraren etete bereziari esker, eskatutako betekizunak betetzen dituztenak ez dira espetxean sartzen eta birgaitu eta gizarteratzea errazteko tratamenduan hasten dira.
- Betearazpena etetearen arrazoi nagusia hau da: etorkizuneko pronostiko itxaropentsua izanik, lehen delitua egin duenari espetxean sartzeak eragin diezazkiokeen ondorio kaltegarriak saihestea. Droga-mendekotasunak tratamendua behar du, programa espezifiko eta konplexuarekin, eta oso zaila da espetxeratzearekin uztartzea.
- Drogekiko mendekotasuna duten pertsonen kondena eteten den kasuetan, horren azpian legegilearen irekitze-ahalegina ezkututzen da delinkuentzia funtzionaleko kasuetarako, Zigor Kodean ezarritako betekizunetako batzuk leunduta. Errealitatean ikus daitekeenez, aztergai dugun biztanleria-sektorearengan narriadura-maila oso handia da, baita gizarte-bazterkeriarena ere, eta haien bizimodua ez da, inolaz ere, normalizatua. Hori horrela izanik, biztanleria horren kriminalitate-indizeak handiak izaten dira eta, kasu askotan, «delitu-ibilbidea» esaten zaionari ekiten diote.
- Azaroaren 25eko 15/2003 Lege Organikoan egindako erreformak garrantzi handia izan du praktikan, etete mota horren aplikazio-aukerak nabarmen handitu dira-eta. Baina oraindik ere mugak oso neurritzko eta mugatzaileak dira, eta horren ondorioz, epailearen edo epaitegiaren aldeko jarrerak ahalbidetzen du droga-mendekoentzako eteteak bere helburua betetzea.
- Espetxe-zigorra eten zaion kondenatu droga-mendekoak errespetatu beharreko baldintzei dagokienez, onartu behar dugu berrerortzeak ohiko kontua direla droga-mendekotasunen tratamenduan, eta ez dira porrot moduan hartu behar. Aurreko hori funtsezkoa da etete berezia droga-mendekotasunaren fenomenoaren errealitatearekin modu koherentean aplikatu nahi bada. Tratamendua alde batera utzi dela egiaztatzeko, kondenatuak tra-

tamenduari uko egin nahi diola egiaztatu behar da, bai zentrotik alde egin duelako, bai drogak behin eta berriz kontsumitu dituela frogatu delako.

- Etete arruntaren eta droga-mendekoentzako etete bereziaren artean alde esanguratsuak daude, eta desberdintasun batzuek ez dute inolako zentzurik. Alde horiek ezabatu eta etete arrunta droga-mendekoentzako etete bereziarekin parekatuko balitz —esate baterako, etendura-epean, edo betekizunak ez betetzearen ondorioetan—, etetearen azken helburua modu eraginkorragoan beteko litzateke, hau da, espetxean ez sartzea tratamendua errazteko eta kondenatua gizarteratu eta berriz integratu dadin lortzeko.
- Ezarritako zigorraren iraupenari muga jarri behar ote zaion azertu beharko litzateke; gaur egun, bost urteko epea dago. Izan ere, askatasunaz gabetzeko zigorraren betearazpena etetea fenomenoaren gizarte-errealitatearekiko modu koherenteagoan aplikatu ahal izango litzateke, eta denboramuga hori ezabatzeko aukera egongo balitz, droga-mendekotasun baten ondorioz delitu egin duen orori onura hori aplikatu ahal izango litzaioke.
- ZKren 87. artikuluan jasotako etete berezia bereizgabe aplikatzen zaie gizonei eta emakumeei, betiere baldintzak betetzen badituzte. Praktikan, gizonak emakumeek baino askoz gehiagotan jotzen dute baliabide horretara, zeren, besteak beste, estatistika kriminologiko guztietan argi agertzen baita gizonak gainordezkatuta daudela delitugileen artean. Emakumeei gizarte-baliabide gutxiago dituzte, bereziki, emakumeen sektore batek tratatu txarren (bikotekideen eta/edo gurasoen aldetik) egoerari aurre egin behar dionean, eta seme-alabak ere zaindu behar dituenean.
- Ondarearen aurkako delituek, gehienbat, eragin dute kondena eta kondenaren ostean Zigor Kodearen 87. artikulua aplikatzea. Droga-mendekoak behar dituen substantziak lortzeko egiten ditu, oro har, delituak, legez kanpoko substantziak oso garestiak baitira, eta betiere, artikulua hori aplikatzeko nahitaez bete beharreko betekizun jakin bat ahaztu gabe, hain zuzen ere, kausa-efektu harremana, drogen mendekotasunari eta delitua egiteari dagokionez.
- Berrerortzeari buruzko ikerketa enpirikoak ez dira oso ugariak. Gehien-gehienak espetxe-berrerortzearen gainekoak dira, baita adingabeek justiziarekin duten harremanaren gainekoak ere. Azken erreformaren ostean, ZKren 87. artikuluan aipatzen den etete berezia eta berrerortzea aldatzeko azterlan enpirikorik ez dugu aurkitu.
- Droga-mendekoak eta berrerortzeari buruz aipatu ditugun azterlanetan fenomenoarekin loturiko askotariko ehunekoak ematen dituzte. Ehuneko horiek lagungarri izan daitezke droga-mendekoen arteko berrerortzearen gaira

hurbiltzeko, baina ezin dira elkarren artean alderatu, irizpide metodologiko desberdinak dituztelako (denbora tartea, delitu motak, berrerortze mota...). Aztertutako subjektuen berrerortze-tasa pixka bat handiagoa da, Estatu osoan kondenatutako guztien kasuan estatistikek adierazten dutena baino.

- Aurrerantzean, horrelako ikerketak egiten jarraitu behar da, oso lagungarri izan baitaitezke bilakaera nolakoa den ikusteko eta, bereziki, berrerorleen arrisku-faktoreak eta babes-faktoreak atzemateko.
- Zenbait ikerketen arabera, droga-mendekoen artean berrerortzea txikiagoa da tratamendua modu arrakastatsuan amaitzen dutenean eta/edo espe-txearentzako neurri alternatiboetan hasten direnean.
- Etetearen aplikazioa hiru Lurralde Historikoetako epaitegien arabera bana-tzeari dagokionez, kopuruei erreparatuta ikusi dugu ehuneko handiena Bizkaiari dagokiola, hain justu Bilbori. Horrek badu azalpen bat; izan ere, Bilbon biztanle gehiago pilatzen dira gainerako tokiekin alderatuta.
- Dena den, Bilbon epaitutako subjektuen artean berrerortzea handiagoa dela esan dezakegu, Donostiakoekin alderatuz gero, eta alde hori estatistikoki esanguratsua da.
- Etete berezian hasteko aukera duten pertsonen kopuru esanguratsu batek, tratamendua eskatzen duenerako, badu informazioa legedi penalean aurreikusitako baliabide horren inguruan. Informazio hori abokatuaren bidez lortzen dute, edo lehendik aplikatu zaien beste pertsonen bidez, ZBLZ eta/edo ALEZ zerbitzuen bidez, eta haiekin harremanetan dauden bestelako elkarte edo GKEen bidez.
- Eguneroko jardunean, etete berezia eskatzen dutenekin esku hartzen duten agenteek eragozpen ugari eta askotarikoak izaten dituzte:
 - ZKren 87. artikuluan aurreikusitako 5 urte bitarteko muga; zigor handiagoa duten delituak egin dituzten droga-mendekoen sektore bat kanpoan geratzen da.
 - Etetea aplikatzea eskatzen duten zenbait pertsona ez daude motibatuta prozesu terapeutiko bati ekiteko; interes nagusia espetxean ez sartzea da.
 - Osasun-arloko profesionalekiko portaera agresiboak.
 - Artikuluaren gezurrezko erabilera, inolako droga-mendekotasunik ez dutenek tratamendua eskatzen dutenean.
 - Atzerritarrak, hizkuntza behar beste menderatzen ez dutenak eta ezin dutenak ongi hitz egin. Horretaz gain, Espainian legez bizi ez diren atzerritarren kasuan, ezin zaie aplikatu ZKren 87. artikulua.

- Substantzietikiko mendekotasunaren eta egindako delituaren arteko kausalitatea ezartzeko zailtasunak.
 - Zenbait epailek ZKren 87. artikulua ez aplikatzeko duen joera, espetxean daudenen kasuan.
 - Osasun-sektorearen lan-karga areagotzea txostenak egin behar izatea-gatik; txosten asko mekanikoki egiten dira.
 - Parte hartzen duten operadoreen arteko desadostasunak.
 - Lana ez aintzatestea.
 - Abokatuaren asistentzia egokia ez izatea, batez ere, ofiziozko txandan, pertsona horien premietarako.
 - Eremu sozio-sanitarioan nahikoa baliabide material eta ekonomikorik ez izatea, delituak egin dituzten droga-mendekoen itxaropen terapeutikoei aurre egiteko.
- Aipatutako zailtasunak gainditzeko bide bat hau izan daiteke: harremanetarako egitura egonkorrak sortzea inplikaturako alde guztien artean, koordinazioa eta informazioa handiagoa izan dadin, Konstituzioan agindutako berriz hezterako eta gizarteratzerako eraginkorrago izate aldera.

tx
i

o
n

s
f

t
o

e
r

n
m

a
e

7. Bibliografia

- ALCÁCER GUIRAO, R. (1995): «La suspensión de la ejecución de la pena para drogodependientes en el nuevo Código Penal», *Anuario de Derecho penal y Ciencias penales*, XLVIII liburukia, III. faszikulua, 887-910.
- BARATTA, A. (1989): «Introducción a una sociología de la droga. Problemas y contradicciones del control penal de las drogodependencias». *Estudios Penales, en memoria del Profesor Agustín Fernández Albor*. Santiagoko Unibertsitatea, 73-93.
- CAPDEVILLA, M.; FERRER, M.; LUQUE, E. (2005): *La reincidencia en el delito en la justicia de menores*, Centre d'Estudis Jurídics y Formació Especialitzada, Departament de Justícia, Bartzelona.
- CARBONELL, J. (2001): «La aplicación de medidas alternativas vistas por los usuarios» En *Gestionando las drogas. Conferencia de consenso sobre reducción de daños relacionados con las drogas: Cooperación e interdisciplinariedad*. Zenbaiten Artean. Bartzelona: Grup Igia, 137-141.
- CASTANYER, M. (koord.) (1998): *Actuar es posible*, Madril, Drogei buruzko Estatuko Planarentzako Gobernuaren Ordezkaritza.
- CENTRE D'ESTUDIS JURÍDICS I FORMACIÓ ESPECIALITZADA (2004): «La reincidencia penitenciària a Catalunya». *Justidata* 37, 1-12.
- CESONI, M. (1994): *¿Salud pública u orden público? Drogodependencias*, Eztabaida Bilduma. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- CHAMORRO RODRÍGUEZ, R.: «Las drogas en prisión», *Las drogas.info*, Instituto para el estudio de las adicciones, [2003ko abenduan aipatua]. World Wide Webean eskuragarri: <http://www.ieanet.com/boletin/opinion.html?o=96>
- CID, J. (1999): «El sistema de penas desde una perspectiva reduccionista: alternativas a la pena de prisión», *Cuadernos de Derecho Judicial*, 4. zk., 119-148.

- (2005): «La suspensión de la pena en España: descarceración y reincidencia», *Revista de Derecho penal y Criminología*, 15. zk., Madril: UNED, 223-229.
- COLMENERO, M. (2005): «La suspensión de la ejecución de las penas privativas de libertad tras la Reforma operada por la Ley 15/2003». *Las penas y sus alternativas*, Cuadernos de Derecho Judicial IV, 175-212.
- (2007): «Comentario al art. 49 del Código Penal». *Comentarios al Código Penal*, C. Conde-Pumpidok zuzendua, 506-507.
- ESPETXE ETA LEGE GAJETAKO BATZORDEA (2004): *Cumplimiento penal y penitenciario de personas consumidoras de drogas*. Jardun-protokoloak. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- CUESTA, J.L. DE LA (1989): «¿Qué resuelve la reciente reforma del Código Penal en materia de drogas?». *Estudios Penales, en memoria del profesor Agustín Fernández-Albor*. Santiagoko Unibertsitatea.
- (2002): «Formas sustitutivas de las penas privativas de libertad en el Código penal español de 1995», J.I.Echano Basaldúa (Koord.), *Estudios Jurídicos en Memoria de José María Lidón*, Bilbo, 125-152.
- (2005): «Adicciones químicas y adicciones sin drogas. Su incidencia en la responsabilidad penal». *Homenaje al Profesor Dr. Gonzalo Rodríguez Mourullo*. (M. Bajo Fernández, A. Jorge Barreiro, C.J. Suárez González, koord.) Nafarroa: Aranzadi, 1272-1299.
- CUESTA, J.L. DE LA; BLANCO, I. (2002): «¿Es posible la normalización de las drogas? Perspectiva jurídico-penal», *Droga. Qué política para qué prevención*, Donostia-San Sebastián, Gakoa, 185-214.
- DÍEZ RIPOLLÉS, J.L. (1989): *Los delitos relativos a drogas tóxicas, estupefacientes y sustancias psicotrópicas: estudio de las modificaciones introducidas por la Ley Orgánica 1/1988, de 24 de marzo*. Madril: Tecnos.
- ECHEBURÚA, E. (2000): *¿Adicciones... sin drogas?*, (2. argitalpena), Bilbo, Desclee de Brouwer.
- ELZO, J.; HUETE, J.; LAESPADA, M.T.; SANTIBÁÑEZ, R. (1996): *Alternativas terapéuticas a la prisión en delincuentes toxicómanos. Un análisis de historias de vida*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- EMCDDA (2004): *Spanish National Report to the EMCDDA by the Reitox National Focal Point*. <http://www.google.es/search?sourceid=navclient&aq=t&>

hl=es&ie=UTF-8&rls=GGLD,GGLD:2006-07,GGLD:es&q=reitox+Spain+%22National+Report+to+the+EMCDDA%22

ETXEBARRIA, X. (2005): «Las medidas de seguridad como alternativa a la prisión». *Servicios Sociales y cárcel: alternativas a la actual cultura punitiva*. Gasteiz: Salhaketa, UPV/EHU, 125-149.

FEBLES, F. (1996): «*La drogodependencia y el Tribunal Supremo*». J.L. Segovia. Nuevo Código Penal al alcance de todos. Madrid: Ed. Popular.

FUNES, J.; REDONDO, S. (1993): *Estudio sobre la reincidencia*. Bartzelona: Centre d'Estudis Jurídics i Formació Especialitzada.

GAÑÁN BARROSO, A.; GORDÓN NUEVO, B.: *La mujer drogodependiente penada en los centros penitenciarios*, gizarte.net, [sarean on line] 2001 [2003ko abenduan aipatua]. World Wide Webean eskuragarri: http://www.gizarte.net/N68PoLinkExtInterServlet?url=%2Fdrogodependencias%2Fdatos%2Fmujer_c.pdf

GARCÍA ALBERO, R. (2004): «De las medidas de seguridad», *Comentarios al Nuevo Código Penal*, (3. argitalpena), Nafarroa, Aranzadi, 539-583.

GIMÉNEZ GARCÍA, J. (2007): «De la suspensión de la ejecución de la penas privativas de libertad», *Comentarios al Código penal*. Conde-Pumpido Tourón (Zuz.), Bartzelona, Bosch, 623 eta hur.

GIMENO SENDRA, V. (1998): «Los procedimientos penales simplificados (Principio de «oportunidad» y proceso penal monitorio)», *Revista del Poder Judicial*, II. berezia: Justizia penala, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Madrid, 31-49.

——— (2004): *Derecho procesal penal*, Colex, Madrid.

GIMENO SENDRA, V.; DÍAZ MARTÍNEZ, M. (2004): «La prisión provisional y sus medidas alternativas». *Estudios de Derecho Judicial LVIII*, 49-83.

GONZÁLEZ CASSO, J. (1999): «La suspensión de la ejecución de las penas en dos supuestos especiales: los artículos 80 n.º 4 y 87 del código penal», *Revista del Poder Judicial*, 54, Madrid, 91-137.

GONZALEZ ZORRILLA, C. (1990): «Remisión condicional de la pena y drogodependencia». *Comentarios a la legislación penal XII*. Cobo del Rosal (Zuz.). Madrid: Edersa. 1-32.

HERRERO, C. (2005): *Delincuencia de Menores: tratamiento criminológico y jurídico*. Madrid: Dykinson.

- ESTADISTIKAKO INSTITUTU NAZIONALA (2007): *Estadística penal Común. Estadísticas judiciales 2006*. [sarean on line] 2007 [2007ko abenduan aipatua]. World Wide Webean eskuragarri: http://www.ine.es/inebmenu/mnu_justicia.htm
- JOSHI JUBERT, U. (1999): *Los delitos de tráfico de drogas I. Un estudio analítico del art. 368 CP*, Bosch, Bartzelona.
- LAPPI-SEPPÄLÄ, T. (2006): «Política criminal y penas alternativas a la prisión en los Países Escandinavos». Itzul. A.I. Cerezo. *Cuadernos de Política Criminal* 90, 121-158.
- LUENGO, M.A.; VILLAR, P. (2005): «Evaluación de la eficacia de los programas de tratamiento de drogodependencias: un análisis desde los predoctores de recaídas», *Encuentro de profesionales n drogodependencias y adicciones. Investigación y evaluación*, [sarean on line] 2005 [2006ko azaroan aipatua]. World Wide Webean eskuragarri: <http://www.drogascadiz.es/AdminManLaJanda/UserImages/3df3ba78-fda9-4590-ae20-5f9e18bfdbd7.pdf>
- LUQUE, M.E.; FERRER, M.; CAPDEVILA, M. (2005): *La Reincidència Penitenciària a Catalunya*. Bartzelona: Centre d'Estudis Jurídics i Formació Especialitzada.
- MARINA, P. (1999): «¿Qué nos han enseñado los estudios de seguimiento de toxicómanos?», *Adicciones* 11. lib. 3. zk., 237-241.
- MAZA MARTÍN, J.M. (2005): «Medidas de Seguridad: incidencia de las últimas reformas». *Cuaderno de Derecho Judicial* 4, 771-102
- MENESES, C. (2003): *La opinión de drogodependientes en prisión tratados por Proyecto Hombre*. Madrid: Gizakia Helburu.
- MORANT VIDAL, J. (2005): *El delito de tráfico de drogas*, Editorial práctica de derecho, Valentzia.
- MORENTÍN, B. (1997): «Drogodependencia y criminalidad: una relación compleja. Implicaciones penales. Revisión bibliográfica». *Actualidad Penal* 17, 393-403
- MOREREA, B. (2000): «Aspectos bioéticos de la asistencia al drogodependiente». *Adicciones* 12, 4, 515-526.
- MUÑAGORRI, I.; ARANA, X. (2006): «Comentario a la Decisión Marco 2004/757/JAI del Consejo de la Unión Europea relativa al establecimiento de disposiciones mínimas de los elementos constitutivos de delitos y las penas aplicables en el ámbito del tráfico ilícito de drogas en relación con la 'Estrategia Europea contra la droga (2005-2012)' del Parlamento Europeo». *Cannabis: salud, le-*

- gislación y políticas de intervención*. X. Arana eta I. Markez (Koord.). Madril: Dykinson, 137-149.
- MUÑOZ CONDE, F. (1996): «Las medidas de seguridad en el Código Penal de 1995». *Cuaderno de Derecho Judicial* 24, 301-322.
- (2004): *Derecho Penal. Parte Especial*. 15.a, Valentzia: Tirant lo Blanch.
- MUÑOZ CONDE, F.; GARCÍA ARÁN, M. (2007): *Derecho penal. Parte General*, (7. argitalpena), Valentzia, Tirant lo Blanch.
- MUÑOZ SÁNCHEZ, J.; Díez RIPOLLÉS, J.L. (Zuz.) (2004): *Las drogas en la delincuencia*, Valentzia, Tirant lo Blanch.
- NEUMAN, E. (1991): *La legalización de las drogas*. Buenos Aires: Depalma.
- PADILLA ALBA, H. R. (2001): *Exención y atenuación de la responsabilidad penal por consumo de drogas*. Granada: Comares.
- PAINO, S.G.; RODRÍGUEZ, F.J.; CUEVAS, L.M. (1996): «Indicadores de riesgo en la reincidencia». *Cuadernos de Política Criminal* 60, 771-787.
- DROGEN PLAN NAZIONALA: *Observatorio español sobre drogas: informe 3. Población penitenciaria: indicadores de prisiones*, Barne Ministerioa, [2003ko abenduan aipatua]. World Wide Webean eskuragarri: <http://www.mir.es/pnd/observa/html/penint.htm>
- PORTERO, G.; DE FRANCISCO, M.L. (2000): «Criminalidad, drogas y tratamiento jurídico». *Drogas. Cambios sociales y legales ante el tercer milenio*. Arana, X.; Markez, I.; Vega, A. (Koord.). Madril: Dykinson. 113-138.
- PRATS CANUT, J.M.; TAMARIT SUMALLA, J.M. (2004): «De las formas sustitutivas de la ejecución de las penas privativas de libertad y de la libertad condicional», *Comentarios al Nuevo Código Penal*, 3. argitalpena. Nafarroa, Aranzadi, 485-537.
- QUINTERO OLIVARES, G. (1986): «El fundamento de la reacción punitiva en el tráfico de drogas y los delitos relativos al mismo». *Drogas: Aspectos jurídicos y médicos legales*, Zenbaiten Artean. Palma: Palmako Zuzenbide Fakultatea, 157-184.
- REKALDE, A.; VILCHES, C. (2003): *Drogas de ocio y perspectiva de género en la CAV*, [sarean on line] 2003ko abendua [2007ko abenduan aipatua]. World Wide Webean eskuragarri: <http://www.gizartegaiak.ej-gv.net/GizarteGaiak-Contenidos/pdf/DROGAS-OCIO-PERSPECTIVA-GENERO-CAV.pdf>

- RÍOS, J.C. (2007): *Manual de ejecución penitenciaria. Defenderse en la cárcel*. 4. argitalpena. Madril: Colex.
- RÍOS, J.C.; CABRERA, P.J. (1999): «La cárcel: descripción de una realidad». *Cuadernos de Derecho Penitenciario* 5, 14-30.
- ROCA, X.; CAIXAL, G. (2002): «Estudio de la reincidencia en una muestra de internos penitenciarios sometidos a tratamiento por adicción a las drogas». Invesbreu.
- ROCA, X.; CAIXAL, G. (2003): «Efectos del tratamiento de toxicomanías en Comunidad Terapéutica respecto a la reincidencia en el delito». *Conductas Adictivas* 3, 1, 46 eta hur.
- RODRÍGUEZ SÁEZ, J.A (2004): «Las reformas penales del 2003 y la realidad de las medidas alternativas a la prisión». *Jornadas contra las reformas penales*. Bilbo: Salhaketa, 55-63.
- RODRÍGUEZ, F.J.; PAÍNO, S.G.; HERRERO, F.J.; GONZÁLEZ, L.M. (1997): «Drogodependencia y delito. Una muestra penitenciaria», *Psicothema* 8. lib., 3. zk., 587-598.
- SAEZ, R. (1989): «Política legislativa antidrogas: la ilusión represiva». *Jueces para la democracia* 7, 15-20.
- SÁNCHEZ MÉLGAR, J. (2006): «La reforma penal en el delito de narcotráfico: su configuración jurídica en la jurisprudencia», *Grupo Revista General del Derecho* [sarean on line] 2006ko urtarrila [2007ko abenduan aipatua]. World Wide Webean eskuragarri: <http://www.rgid.com/pages/articnov/narco.htm#9comportamientos>
- SÁNCHEZ TOMÁS, J.M. (2002): *Derecho de las drogas y las drogodependencias*, Fundación de Ayuda contra la Drogadicción, Madril.
- SÁNCHEZ-CARBONELL, X.; BERANUY, M.; FORCÉN, M.; VIRGILI, C.; COLOMERA, P. (2005): «Indicadores sanitarios y sociales de la evolución de una cohorte de adictos a heroína: 1985-2000. Proyecto EMETYST», *Revista Española de Drogodependencias*, 3. eta 4. zk., 30. lib., Aesed, 283-300.
- SÁNCHEZ-CARBONELL, X.; FORCÉN, M.; COLOMERA, P. (2004): «Evolución penitenciaria de una cohorte de 135 adictos a heroína entre 1985 y 2000», *Trastornos adictivos*, 1. zk., 6. lib., 39-45.
- SANTAMARÍA HERRERO, J.J.; CHAIT, L. (2004): «Drogadicción y delincuencia. Perspectiva desde una prisión». *Adicciones* 16/3, 207-217.

- SANZ MORÁN, A.J. (2003). *Las medidas de corrección y seguridad en el derecho español*. Valladolid: Lex Nova.
- SEGOVIA, J.L. (2004): *El Código Penal al alcance de todos*. 7. argitalpena. Madril: Editorial Popular.
- SEQUEROS SAZATORNIL, F. (2000): «El Tráfico de drogas ante el ordenamiento jurídico: evolución normativa, doctrinal y jurisprudencial», Madril: La Ley.
- SOLA DUEÑAS, A. de (1996): «Penas alternativas, formas sustitutivas de la ejecución de las penas privativas de libertad y medidas de seguridad en el nuevo Código Penal», *Revista de Derecho penal y Criminología*, 6, Madril, 1201-1225.
- SUAREZ-MIRA RODRÍGUEZ, C. (2000): *La imputabilidad del consumidor de drogas*. Valentzia: Tirant lo Blanch.
- SUBIJANA ZUNZUNEGUI, I.J.: «El juez en la ejecución de las penas privativas de libertad», *Revista Electrónica de Ciencia Penal y Criminología*. 07-11. [sarean on line] 2005 [2007ko abenduan aipatua]. World Wide Webean eskuragarri: <http://criminet.ugr.es/recpc/07/recpc07-11.pdf>
- TAMARIT, J.M. (2003): «Drogas y Derecho Penal». In *Drogodependencia y Derecho*. Cuadernos de Derecho Judicial VIII. Madril: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, 171-210.
- TORRE, M.; BALBOA, A.; AYESTA, F.J. (2003): «Situación de la mujer dependiente a heroína en Cantabria: análisis de los resultados del estudio de las pacientes en la última década», *I Symposium Nacional sobre adicción en la mujer* [sarean on line] 2003 [2007ko abenduan aipatua]. World Wide Webean eskuragarri: <http://www.institutospiral.com/cursos%20y%20seminarios/primer-symposium/cmarta.htm>
- UNAD (2006): *Drogodependencias y Prisión: Situación de las cárceles españolas. Estudio sobre la situación de las personas con problemas de drogas en prisión*. Madril: UNAD.
- MADRILGO UNIBERTSITATE KONPLUTENTSEA: *Suspensión de la condena* [sarean on line] 2006ko urtarrila [2007ko abenduan aipatua]. World Wide Webean eskuragarri: <http://www.ucm.es/info/eurotheo/normativa/suspension.htm>
- URBANO ALJAMA, A.; AROSTEGI SANTAMARÍA, E. (2004): *La mujer drogodependiente: especificidad de género y factores asociados*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.

- VALLE MUÑIZ, J.M.; FERNÁNDEZ PALMA, R. (2004): «Tratamiento jurídico penal del tráfico ilegal de drogas tóxicas», *Comentarios al Nuevo Código Penal*, 3. argitalpena. Nafarroa, Aranzadi, 1864-1925.
- VARGAS, G. (2005): «Droga y delito», *Fundación Paz Ciudadana* [sarean on line] 2005 [2007ko abenduan aipatua]. World Wide Webean eskuragarri: http://www.coperativa.cl/p4_noticias/site/artic/20050830/asocfile/ASOCFILE120050830141219.pdf
- VEGA, J.A. DE LA (1996): «Tratamiento extrapenitenciario para drogodependientes. Artículo 57.1 del Reglamento Penitenciario». *Actualidad Penal* 12, 207-219
- VIADA, S. (1992): «El juzgador ante el delincuente toxicómano». *Cuaderno de Derecho Judicial* 17, 321-361.
- ZENBAITEN ARTEAN (1989): *Repensar las drogas*. Bartzelona: Grupo IGIA.
- ZENBAITEN ARTEAN (2003): *DSM-IV-TR. Manual diagnóstico y estadístico de los trastornos mentales*. Bartzelona: Masson.